



ttipi-ttapa

TOIKOM

2014ko maiatzaren 29a | XXXIV. urtea | 615. zenbakia

www.ttipi.net



'Euskal Herria
Mendi Erronka' Leitzan,
maiatzaren 31n → 41

Herriko bestak

Berroeta → 34

BERA → 11

Enaitz Gara Taldeak pres-
tatuta haurrentzako besta

ETXALAR → 13

Gasna Feria Eguna
ekainaren 1ean

DONEZTEBE → 19

Malerrekako Eguna
maiatzaren 31n

KIROLA → 41

Zaira Latasa Kenpo Kai-
ko Espainiako txapeldun

Europako Parlamenturako hauteskundeak emaitzak herriz-herri → 24



ETORKIZUNA ERABAKITZEA GURE ESKU DAGO

ELKARRIZKETA → 3

Jon SILVEIRA | Gure Esku Dago-ko kidea

Erabakitze eskubidearen aldeko mugimenduak Durango eta Iruñea lotuko dituen 123 kilometroko giza-katea antolatu du

Arano-Goizuetakoak 102. kilometroan
elkartuko dira (Arakil), Baztan, Bertizarana,
Bortziriak, Malerreka, Urdazubi eta

Zugarramurdikoak 108. kilometroan (Itza),
Areso-Leitzakoak 110. ean (Itza) eta
Iparraldekoak 111 eta 112. kilometroetan.

Hezkuntza Erreforma

LOMCE legeari
ezezko borobila
eman diote
ikastetxe guztiek

Datorren ikasturtean
sartuko da indarrean le-
ge berria eta «informa-
zio falta» salatzen dute
ikastetxeek. → 4-5

ZOKETAK

→ 48



ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari

Txartela egiteko deitu
948 635 458 telefonora

Ekainak 12, 13, 14 eta 15



OKASIOKO IBILGAILUEN eta ERDIBERRIEN 2. FERIA

Lekua: **Hiper Simply ARRAIOZ** **HIPERSIMPLY**
Bazter - Bideak

berako agenda

.net

Twitter Facebook

Ekaina

Berako agenda

3 ASTARTEA | **UDAKO KONTZERTUA:**
18:30 Kultur Etxean
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

6 ORTZIALA | **XXVII. BAZTAN-BIDASAKO BERTSOPAPER LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
18:00 - Kultur Etxean
Antolatzailea: Bortziritako Bertso Eskola eta Berako Kultur Batzordea

Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurreneko ekitaldia

15 IGANDUA | **TXISTULARIEN EGUNA**
11:00etatik aitzinera goizean zehar kalejira Altzaten bera
12:30 - Erraldoiekin batera Akabatzeko Itzea aitzinean joko dute

13tik 15era | **ALTZATEKO BESTAK**

17 ASTARTEA | **BERAKO BESTETAKO BILERA IREKIA**
19:00 - Beralandetan

19 ORTZIALA | **EMAKUMEAK KURDISTANGO GERRILLAN DOKUMENTALA - MAHAI-INGURUA**
"Mujeres del monte Anaral"
19:30 - Beralandetan

20 ORTZIALA | **EMAKUMEA ETA GIZONA EUSKAL DANTZETAN:**
(Oler Aralaza antropologi eta dantzaria)
20:00 - Beralandetan

21 LABURNATA | **ANTZERKIA: "Publikoari gorroto"**
(Hitz teatroa)
22:00 - Kultur Etxean
Sarrera: 6€
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea
Argitea: www.publikoarigorroto.com

26 ORTZIALA | **SOLASALDIA: Gaixotasun mentalek sortzen duten bazterketa**
19:30 Beralandeta
Antolatzailea: Anasapi-Diedra

Enaitz lagundu

1 IGANDUA | **ZINEMA EMANALDIA: "Soinuen loretegia"**
(Nicola Pizzoni, Italia, 2010)
17:00 - Kultur Etxean

7 LABURNATA | **ENAITZ EGUNA:**
11:00 - Putzgarriak, haur jokak... Toki Orako Patioan (Egunaldi txarra eginez gero, Erriagora pilotalekuan)
Arratsaldean - Iturengo joandun trikoak, trikotilanak...
19:00 - Zozketa

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonon edo www.berakoagenda.net

BERAKO AGENDA

Ate joka dugu ekainaren 8ko hitzordu haundia. Egun horretan, Euskal Herriar guztien erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeko Iruñea eta Durango batuko dituen 123 kilometroko

giza-katea egingen da, Gure Esku Dago herri mugimenduak deituta. Eskuz esku bide osoa osatu nahi dute, herritarren partehartzearekin. Eskualdeko ehunka herritarrek abxikimendua

adierazi diote ekimenari eta giza-katean parte hartuko dute, egokitu zaien kilometroetan, Itza eta Arakilen. 12:00-12:30 artean osatuko da katea eta eskualdetik autobusak aterako dira.

Jon SILVEIRA | Gure Esku Dago-ko kidea

«Bakoitza bere pentsaerarekin, batzen gaituen ekimen batean elkartuko gara»

G. PIKABEA | LESAKA

Zer egin du orain arte Gure Esku Dago-k eskualdean?

Lesakan, adibidez, urtarilean hasi ginen lanean, eskualdean lehenbiziko herria seguraski, eta gero herri bakoitzak bere erritmoa izan du. Herri gehienetan, ekimen desberdinak antolatzen talde iraunkorrak daude lanean, eta talde iraunkorrez gain, laguntzaile aunitz daude ekimen horiek aitzinera ateratzeko. Orain arte, metroak saltzeko ekimen desberdinak egin ditugu. Lehendabizi aurkezpenak herri guztietan eta gero herri bakoitzeko taldeak beren dinamika propioak sortu ditu. Lip-dub-ak, mosaikoak, bideoak, argazkiak, Gure Esku Dago egunak... Denak helburu berdinarekin egin dira, jendea giza-katean parte hartzera animatzeko. Gustura gaudu orain arte egindako lanarekin.

Gero eta hurbilago dago ekainaren 8a. Zein izan da lorpenik haundiena?

Giza-katean herritar aunitzek parte hartuko dugula izan da lorpenik haundiena, bakoitzaren pentsamolde desberdinekin, baina batzen gaituen ekimen batean elkartuko gara: erabakitzeko eskubidearen alde. Dinamika herritar guztiei zabaltzen saia-



ARGAZKIA: TTPI-TTAPA

Jon Silveira lesakarra Gure Esku Dago dinamikaren eskualdeko arduradunetako bat da.

tzen ari gara eta uste dugu lortzen ari garela. Egin diren ekimenetan milaka partehartzaile eta atxikimendu jaso ditugu.

Nolako eragile eta alderdiek eman diote dinamikari babesa?

Babesa edozein eragilek eman dezake, baina guk norbanakoak biltzen ditugu, erabakitzeko eskubidearen alde dagoen edonor. Eta horrela, era aunitzetako jendea biltzen ari gara. Talde politikoetako militanteak ere egon daitezke Gure Esku Dago ekimenean lanean, baina ez talde horiek ordezkatzeko, beraien burua ordezkatzuz baizik.

GIZA-KATEA

Baztan, Bertizarana, Bortzirak, Malerreka Urdazubi eta Zugarramurdi herriarrei Itza herrian egotea egokitu zaie giza-katea osatzeko, 108. kilometroan. Leitza eta Aresokoak ere Itza herrian izanen dira, 110. kilometroan; Ipar Euskal Herriko herritarrek 111. eta 112. kilometroetan egonen dira, hauek ere Itza herrian. Goizuetarrak eta aranoarrak 102. kilometroan egonen dira, Arakilen.

Eskualdeari begira, Baztan-Bidasoaldeari 108. kilometroa egokitu zaio, Areso eta Leitza 110. kilometroan izanen dira, Ipar Euskal Herriko herriak 111. eta 112. kilometroetan eta Arano eta Goizueta 102. kilometroan. Zenbat lagun behar dira kilometro horiek osatzeko?

Kilometro bakoitzean guttienez 400 pertsona behar dira, eta Baztan-Bidasoaldean, adibidez, 108. kilometroan, jadanik lortu ditugu. Gure helburua 600 pertsona lortzea da. Durango eta Iruñea batuko dituen giza-katerako 50.000 la-

gun inguru biltzea aurreikusi zen eta aisa bilduko da jendea. Datuek hori erraten digute behintzat. Baina ez gara 50.000 lagunekin konformatzen, ahalik eta jende kopuru haundiena lortu behar dugu. Metroak azken egunera arte eros daitezke.

Ekainaren 8ko giza-katearen ondotik zer?

Gerora begira lantalde bat dago martxan dagoeneko. Ekainaren 21ean 0 Batzarra egingen da, eta bertan batzar eratzailerako zimen-tuak jarriko dira.

Erabakitzeko eskubidea nolako proiektuak gauzatzeko?

Proiektu guztiek aukera izan dezaten...

Kataluniaren prozesua eta Euskal Herriko konparatzen ahal dira?

Bi herrialdeek ibilbide desberdinak izan dituzte, eta beraz, konparaezinak dira. Baina erabakitzeko eskubidea berdina da munduko herrialde guztietan, herrien eskubidea baita.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Ekainaren 8an erabakitzeko eskubidearen aldeko giza-katean parte hartzera animatu nahi nuke jendea. Autobusak Beratik, Lesakatik, Doneztebetik eta Elizondotik aterako dira eta dohainik izanen dira. Beraz, bertan ikusi go gara!



Zugarramurdiko ikasleak LOMCEren aurka egindako protestan.

GIZARTEA → HEZKUNTZA ERREFORMA BERRIA

Mila galdera airean eta hezkuntza erreforma atean

«Nola edo hala, legea indarrean paratu nahia» salatu dute eskualdeko ikastetxeek

Aurkako erreakzioak karriketan, beharrezko kontsentsurik ez parlamentuan, baina indarrean da LOMCE legea. Datorren ikasturtean paratuko dute martxan Lehen Hez-

kuntzako 1., 3. eta 5. mailetan eta Lanbide Heziketan. Eskualdeko ikastetxe eta institutuen iritzia bildu du TTIPI-TTAPAK eta «informazio gabezia» salatu dute gutziek.

Eneritz IRAOLA

Zurrumurruak ugari eta azalpen argirik ez. Datorrenaren esperoan dira eskualdeko ikastetxe eta institutuak. Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa du izen ofiziala, gehien-
goak aldaketarekin ho-

bekuntza handirik espero ez duen arren. Horregatik izanen da agian ezagunagoa LOMCE edo Wert legea bezala. Izena edo abizena dena delakoa izanda ez daguehiegirik aldatzen egoe-
ra: hezkuntza erreforma indarrean dago.

Giro nahasi honetan, Jose Iribas, Nafarroako hezkuntza kontseilariak aurkeztu ditu behin behineko dekretuak eta hezkuntza erreforma «nafar erara» aplikatuko zela aurreratu zuen arren, zirrikitu handirik ez du utzi legeak.

EDUKIEN KONTROLA

Gobernu zentralak finkatuko ditu enbor-ikasgaiak eta gutxienez eskola ordutegiaren %60 baino gehiago eskaini beharko zaie Madril en adostutako edukiei. Horren ondorioz, ikastetxeen «autonomia gutxituko da» diote eskualdeko ikastetxeetako ordezkariak.

Edukietan aldaketa handia ekarriko du, Nafarroa ez baita erreferente nagusia izanen. Desagertu egin dira Nafarroako kultur adierazpideei lotutako edukiak eta Espainiako gertaera historiko eta pertsonaiak ugaritu. Orain artean, hurbileko adibideak aintzat hartzen ziren eta aurreantzean badirudi ez dela hala izanen.

Atzerriko bigarren hizkuntza bat eskaintzeko aukera aipatzen du hezkuntza erreformak, baina horretarako heziketa artistikoa, hau da musika edota plastikari eskaintzen zaizkion orduak erabiliko lirake.

IKASKETA EREDUA

«Atzera pausoa da, adostasunik ez duena eta kalitatezko hezkuntza ereduaren aurka doana».

ZAZPIGARRENA

7

ERREFORMA

egin dituzte hezkuntza arloan Frankismoa amaitu zenetik.

AZTERKETAK

Ikasketa amaierako tituluak lortzeko, azterketa egin beharko dute DBHko 4. mailako eta 2. Batxilergoko ikasleek. Ikastetxeek orain artean zuten ahalmena galduko dute, azterketak eskolaz kanpoko erakunde batek antolatuko eta zuzenduko dituelako. Hau-
ek ez dira izanen ikasleek gainditu beharreko langa bakarrak, lehen hezkuntzako 3. eta 6. mailan ere kanpo ebaluazioen bitartez ebaluatuko dituzte ikasleak.

EBALUAZIOEN ONDORIOAK

Ikasketa prozesuan horrek eragina izanen duela uste dute irakasleek «gaitasunak landu ordez, gure eguneroko jardueretan garrantzi gehiago emanen zaio azterketak gainditzeari, azken finean emaitza ikusgarriak lortzeari». Presioa ikasleengan eta baita ikastetxeengan ere, ikasle-
een emaitzak zerrenda publikoetan kaleratuko dituztelako. Horrek ikastetxeen rankinga sorle-
zakeela ohartarazi dute. Ondorioz, «ikastetxe bateg hagitx proiektu sendo eta interesgarria eduki dezake baina batez ere

ESKUALDEKO IKASTETXE ETA INSTITUTUEKIN SOLASEAN



Bortzirietako ikast. publikoak+Toki Ona

«Alderdi politiko bakoitzak bere legea egin nahi du. Itun handi bat behar da hezkuntza politiko-en menpe ez gelditzeko».



Baztan ikastola

«Hezkuntza zentralizatu nahi dute, gure lurralde eta kulturarekiko duen hurbiltasuna gutxietsiz».



Leitzako Erleta eskola

«Gauzak presaka doaz, informazio falta handia da. Lanean hasi ahala egin beharko diogu aurre datorrenari, ahal dugun eran».

LOMCEren ondorio nagusiak:

- **Kanpo ebaluazioak** ugaritu.
- Ikasle eta ikastetxeen arteko **lehiakortasuna** bultzatu.
- Ikasle "on" eta "txarren" arteko **banaketa**.
- **Lanbide heziketan** hasteko adina **aurreratu**: 15 urtera.
- **Euskara espezialitateko** ikasgaia bihurtu.



Lekaroz-Elizondo Institutua

«Gaitasunak landu ordez, emaitza ikusgarriak lortzea du xede. Lehiakortasuna bultzatzen du eta ez benetako ikas prozesua».



Urdaz., Zugarram. eta Baztango eskolak

«Urteetan lortutako aurrerapen guztiak, 30 urtez gibeleratuko dira. Ikasle eta ikastetxeen bazterketa, mailakatzea... dakar»

Edukietan aldaketak:

- Edukien gaineko **kontrol handiagoa Madril**ek.
- **Erreferente** nagusia **Espainia** izatea Nafarroa beharrean.
- **Atzerriko bigarren hizkuntza** bat eskaintzeko aukera. Orduak **arlotan artistikoari gutxituz**.
- Formakuntza **akademikoa soilik** landu, **gaitasun guztiak landu** beharrean.

Malerrekako Herrietako Eskolak

«Oztopoak jarriko zaizkie zailtasunak dituztenei. Gizarte konpetitibo bat eraikiko da konpetentzia landu ordez».

Doneztebeko Mendaurre Institutua

«Ikuspuntu enpresarial eta konpetitibo asko indartuko da sormena eta iritzi kritikoa bultzatzen duten arloak murriztuz».

Berako Labiaga ikastola

«Lanbro moduko bat dago gaiaren inguruan, ez dago ezer uki-garria. Legea aplikatu nahi dute presaka eta gaizki egin arren».

Lesakako Tantirumairu ikastola

«Ziurgabetasun handia dago. Bertako hezkuntza eredu propioa diseinatu eta garatzea izanen litzateke egokiena».

matematika eta hizkuntzak neurtzen dituen kanpo azterketa horren emaitzak onak ez badira, agian sailkapen horretan beheko aldean agertuko da, horrek erakartzea prestazio gaitasunarekin». Emaitza horiek gainera eragin zuzena izan dezakete, matrikulazioetan, baita eskolak jasoko dituen diru-

laguntza eta irakasleen lan baldintzetan ere.

IKASLEEN ZATIKETA

Lanbide Heziketan hasteko adina aurreratu dute. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aitzinera egiterik ez duten ikasleek Oinarriko Lanbide Heziketan eman ahaliko dute izena, 15 urterekin. Horrekin, Batxilergoa edo Lanbide He-

ziketaren artean aukeratzeko unea urtebete aurreratu da.

HIZKUNTZA GUTXITUAK KALTETUTA

Euskara Heziketa Fisikoa eta Musikaren maila berera pasako da eta espezialitate izendapena jasoko du aurrerantzean. Eskualdeko ikastetxe gehienak D eredukoak izanik, neurri honek ez die-

tela zuzenean eraginen espero dute, «dena den zer gertatzen den ikusi beharko dugu, euskara bultzatzeko pausorik ere ez» omen dute Hezkuntza Kontseilariagandik espero.

EZEZKO BOROBILA

Eskualdeko ikastetxe eta institutuek ezezko borobila eman diote erreformari «atzera pausoa»

delakoan. Ostiral beltzak, elkarretaratzeak, informazio bilerak... antolatu dituzte orain artean eta irailean «egoerari aurre egiteko zerbait» pentsatu beharko dutela erran digute. «Hezkuntza eredu egoki baten alde lanean» segitzea delako euren nahia, politikoen nahien arabera mugitzen diren txotxongiloak izan gabe.



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Lurtar

Putreak haragi zaharra bezala, aferu guzien gainetik sosa, sosa eta sosa bertzerik ikusten ez duen lurtar handiuste eritua. Egunetik egunera krisia finitzera doala aditzeaz nardaturik, lana galdu berri, galdu hurren, edo ezin atzeman bizi den lurtar xehea. Krisia pasatu dela ahalke gorrikerik gabe erranez, diru-aldea alferrik harrika bota duen lurtar agintari jaun-andretxoa. Bertze lurtarrez soilik hauteskunde sasoiaren botoa eskatzeko oroitzen den lurtar gezurtia eta harekin itsuki fidatzen den lurtar fidela. Noizbait ere gertaturiko miseria ttikiak barkatzeko kapaz ez den lurtar temazu barne egosia. Eta jendaki edo lagun baten ustekabeko edo jakiniko heriotza errukigabea jasaten ari den lurtar abailduari, eta gaitz minduaren kontra borroka bizian ari den lurtar ausartari, oinaze guzien gainetik, bihotz-bihotzez, «aitzineira, bizi, bizi eta bizi» desio dion lurtar hilkorra.

«Egunetik egunera krisia finitzera doala aditzeaz nardaturik, lana galdu berri, galdu hurren, edo ezin atzeman bizi den lurtar xehea»

Ezpala
Aitor AROTZENA

PPerlak

Hauteskunde aitzinetik utzitako perlak: PPko Leongo presidentaren hilketaren errua (PPko militante batek egin zuen tiro) ezkerrearen kanpainarena da; emakume batekin egindako eztabaidan *nagusitasun intelektuala* agertuz gero matxistatzat jotzen zaituzte (Cañete y olé); Sadarko hesia erortzearena aitzinetik prestatua zegoen, denbora galtzeko (Valladolideko alkatea). Normal irabaztea!

Nabarmentzekoak



Niko MINDEGIA
EHF Kopako txapeldun

Doneztebeko eskubaloijokalaria Europako EHF kopa irabazi du Hungariako Pick Szegegd taldearekin. Montpellier taldearen kontrako finalean hiru gol sartu zituen Nikok.



Zaira LATASA
Espainiako txapeldun

Gerriko marroi eta beltzeizuzendutako Espainiako kenpo kaitxapelketan urrezko domina bat eta zilarrrezko bi lortu zituen *kenshi* elizondarrak Linaresen (Jaen).



Ismail RAZGA
Goizutrailen irabazlea

128 korrikalarik parte hartu zuten maiatzaren 17an Goizuetan egin zen Goizutrail mendilerketan. Santurtziarrak ordubete, 47 minutu eta 21 segundotan bukatu zuen ia 22km.ko proba.

Atzera begira → 2004.06.03 / TTPI-TTAPA 375 zk.



Artile lana pikardia bihurtua Bittoriano Artzuagaren eskutik

Nork ez du ezagutzen Bittoriano Artzuaga Urrozko harigilea? Han eta hemen go feria eta azoketan izaten da oraindik orain eta berak garbi erraten du horixe dela gehien gustatzen zaiona, jendearekin egotea, erosleekin solastea eta funtsean, ferietako giroa bizitzea. Duela hamar urte egindako elkarrizketan zioen, «tanga bezalako jantzi modernoak antigualeko hariarekin egiten ditut». Eskulangileen arazoa lanaren prezio apala izaten da. «Denbora batean, Diputazioarako zortzi ordu egin eta 12 pezeta irabazten nuen eta galtzerdi pare 30 pezetan saltzen zen. Gaur, arabarean prezio hori egin behar baluke!» zioen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneiz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irupe eta Itzaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega., Iñigo Imaz.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administratzailea** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Kaskoporra. Feria eskolan

Joxe ITURZAETA

Hau ferial! Porrarekin ezkutua jo, eskopetekin apuntatu eta fikziozko tiroa egin, kotxeko sirena piztu, metralletak ukitu! Helikopterora igo! Eta eskolatik atera gabe!

- Bueno, orain joko bat egingen dugu. Nork nahi du agentea izan? -agente lirainak.

- Nik! Nik! -ikasle guztiek. Zintronikoko alkatesa harro, Alba delegatuaren ondoan.

- Oso ongi! Hamar lagun eskuin aldera, porrak hartzeko. Bertze hamar, ezker aldera, kaskoak zuendako. Bolondres bat, nere ondora. Eta manifestariak? -Zigortutako bortz ikasleek pausu bat eman dute aitzin, lau oihal hedatuz: "LOMCE ez", "Recortes ez", "Barcina kanpora" eta "ETB bai".

- Eta kazetariak? -Sei neska txarteldun hurbildu zaizkio: "Press". -Orain taldetxo bakoitza bere monitorearekin joan... -Mutiko bolondresari belarrira zerbait adieraziz, tresna pasatu dio. Manifestariekin bat egitera joan da. Manifestazioa abiatu da!

- Recortes ez! -ohiukatzen dute bortz ikasleek. Gibeletik, hamar ikasle kaskodunek segitzen dituzte. Halako batean, manifestari bat ohartu da: seigarren ikasleak porra bat dauka txaketa azpian.

-Espia da! -Pankarta utzita beregana joan da. Infiltratuak ihes egin du, gibeletiko agenterantz. Hauek, burua behitatu eta manifestarien kontra kargatu dute -Kasko! Kasko! -deia darka.

Agertu dira bertze hamar agente, porrak airean astinduz. -Porra! Porra! -ohiukatzen dute, manifestariak inguratuz. "Press" txarteldunak hurbiltzen dira argazkiak ateraz. -Argazkirik ez! -diote agenteek, beraiengana korrika. -Kamarak eman!

-Aitarena da! -Kazetariak ez dio emanen. Prentsari porrekin egurra.

- Porrak! Porrak! -Kasko! Kasko! -harataxago. Cordovillako kazetaria agertu da argazkiak ateratzera. Gaizoa... Bere kontra kargatzen dute. -Kasko! Kasko! -Buruekin jo eta lurrean akitzen du. Gomazko pilota batek zuzendaria jo du!

- Gelditu! -agindu du Alba andreak. Pavodedía kapitainak benetazko guardiak bidaltzen ditu. Alba andrearen gibeletik, mutiko bat lanzatu egiten da bizikleta gainean bere kontra -Zezena! Zezena! -karraxi eginez. Danba! Ipurdian jo eta hankaz goiti botatzen du gobernuko delegatua. Hango zalaparta! -Ongi zaude, andrea? -alkatesak.

- Kasko! Kasko! Porra! Porra! Zezena! Zezena! -kotxeko megafoniatik.

Benetazko agenteek ikasleak desarmatu eta lau lerrotan kokatu dituzte.

- Ez al zaizue gustatu gure erakusketa? Zergatik erasotu dituzue ikaskideak? -delegatuak.

- Arriskutsuak ziren... eta kazetariak ez dizkigute bere kamarak eman... -ikasle batek.

- Guk agintzen genuen. Hortarako bagenituen porrak... -bigarren batek.

Agente batek kontatzen dio Pavodedíari:

- Kapitaina... norbaitek kaka egin du helikopteroan.

Existitzen ez den jendea

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Euskal gatazkak hainbat zehar kalte utzi dizkigu urte hauetan guztietan. Horietako bat litzateke, adibidez, gizartearen sektore batek Poliziaren biolentziaren aitzinean oraindik erakusten duen sentsibilizazio eza. Azken urteotan Espainian ikusi diren irudiek pixar bat aldatu dute pertzepzio hori, baina euskal gizartearen masa handi batek oraindik justifikatu egiten du euskal gizartearen bertze sektore baten kontra gehiegikeriaz jokatzeko. Gatazkak utzitako bertze zehar-kako kalte bat litzateke, berriz, absurdoarekin elkar bizitzeko lortu dugun gaitasuna, ergelkeria gure egunerokoan ametzitekoa. Nola ulertu bertzela oraindik ere aditu behar izatea ETaren indarkeria dela-eta Hego Euskal Herriatik alde egin omen zuten 200.000 exiliatu edo erbesteratuen gezurra. Berriki Europako hauteskundearen kanpainan ere aditu behar izan dugu, Euskal Herrian marjinala den eskuin muturreko alderdi baten eskutik. Exiliatuen kontu hori duela hamalau-hamabi bat urte hasi ziren haizatzen. Horren arabera, 30 urtean 200.000 herritarrek alde egin omen zuten Hego Euskal Herriatik ETatik eskapo; 200.000 espainolistak, ulertzen da. Kalkulagailua erabiliz gero, urtero 6.666'666 herritarrek alde egin omen zuten. Deabruaren zifra, inondik ere. Hemen bizi den edozeinek badaki astakeria galanta dela hori egia dela erratea. Jose Mari Esparza editore nafarrak artikuluan batean baino gehiagotan desegin du exiliatuen gezur hori. 2012an Garan

«30 urtean 200.000 herritarrek alde egin omen zuten Hego Euskal Herriatik ETatik eskapo (...) Teoria hori egia balitz Irunen 7.200 herritarrek alde egingen zuketzen, eta Leitza 350ek»

argitaratutako batean, proportzioak herriko kalkulatu zituen, eta Esparzaaren arabera, teoria hori egia balitz, Irunen 7.200 herritarrek alde egingen zuketzen 30 urtetan, eta Leitza 350ek. Irun bederen, 30 urtetan etengabe hazi da, eta eskapo joan omen ziren horiek hutsik utzitako auzorik ez da ezagutzen. Eta hara non joan den astean Norvegiako Errefuxiatuen Batzordeak Nazio Batuen Erakundearekin batera munduko desplazatuen datuak argitaratu zituen. Espainiako komunikabideetan bertan ikusi ahal izan genuen, eta aizue, inor ez zen oroitu Hego Euskal Herriatik alde egin behar izan omen zuten 200.000 horietaz. Ageri ziren Bosnia-ko 103.400ak, Filipinetako 115.800ak edo Maliko 218.000ak, baina Hego Euskal Herria, Europaren mendebaldean, ahantzi egin zuten. Ahantzi egin zuten, 200.000 horiek existitzen ez direlako. Baina existitzen ez den jendea izateko, burukomin franko eman behar dizkigute oraindik.

Irakurleak mintzo

Pediatria
euskalduna
eskatzuz

Alaitz ESKUDERO
(Nafarroako Iparraldeko
Euskara Mankomunitateko
Lehendakaria)

“Herriar guztiek, Administrazio Publikoetako harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute”.

Halaxe dio Nafarroako Euskararen Legearen 10. artikulua, euskara ofiziala den eremurako. Gure herriotan, beraz, euskaraz egin dezakegu administrazioarekin. Horretarako, ordea, lanpostu horiek euskaldunak izan behar dute, eta zenbait kasutan ez da hala. Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoako eskualdeko osasun etxeeko pediatria lanpostuak ez du euskara jakiteko betekizunik, eta urte askoan, baita gaur egun ere, erdalduna izan dugu eta dugu pediatria.

Egoera horrek bultzatuta, UEMAK, Hizkuntza Eskubideen Behatokiak, eskualdeko udalek eta eskualdeko euskara taldeek kanpaina bat egin dute, eskualdeko pediatria lanpostua euskalduna izan dadin eskatzeko. Haurrak pediatriarengana eramateko adinean dituzten 171 gurasok eskatu dute pediatria euskalduna izan dadila, Nafarroako Gobernuari zuzenduta-

ko eskaera ofizial bat sinatuta. 99k Leitza, 54k Goizuetan eta 18k Areson (gure eskualdean UEMAN dauden hiru herrietan, hain zuzen ere).

Eskaerak, beraz, gurasoen artean babes handia du, eta osasun etxean haurrak euskaraz atendituak izateko eskaera garrantzitsua da gurasoentzat, bistan denez. Euskaldun gisa ditugun eskubideen aldarrikapena dago eskaera horren atzean, baita komunikazio zuzenarekin zerikusia duten arrazoi praktikoak ere.

Eskualdeko herritarren eskaera aski argia da, eta Nafarroako Gobernuak badu horren berri, eskaera horiek guztiak hari bideratu baitaizkio. Urratsak, beraz, egoera honen erantzule nagusia den Gobernuak berak eta Osasunbideak eman beharko lituzkete, euskararen legeak aitortzen duen eskubide hori gauzatzeko urratsak eginez, tartean behar diren aldaketa eta neurri legal eta administratibo guztiak ezarriz.

Horixe da kanpaina hau bultzatzen duten eragile guztien eskaera, eta herritarrek pediatria euskalduna eskatzeko egin duten eskaerak ere bat egiten du asmo horrekin. Kontuan hartu beharreko eskaerak eta iritziak dira, eta kontuan hartuak izan daitezkeen eskatzen diogu Nafarroako Gobernuari eta Osasunbideari.



Bota bertsoa

Egoitz GOROSTERRAZU • Doinua: Mutil koxkor bat itsuarreko...

Malerrekako Eguna Donezteben

Malerrekarron egun haundiak
nola hasi ziren etortzen
lenik Zubita, gero Eratsun
han ere giroa bazen
uain Doneztebek testigua hartu
hasi dira antolatzen
Maiatza dugu hogeitameka
egun ederra hain zuzen
egun haundia iritsia da
hasi gaitezen ospatzen.

Lehenik harrera, artisau batzuk
dantzariak aurreratu
paella janta muxiko batzuk
denen tartin parte hartu
musin finala, herri kirolak
Joaldunak tartekatu
afaria ta berbena pixkot
nola ezin zen faltatu
parte hartzera animatu ta
eguna bikain pasatu.

ROLL-UP ERAMANGARRIA

KOLORETAN INPRIMITUA (alde batetik) ETA AUTOMATIKOKI
BILTZEN DENA. Toki batetik bertzera modu errazean eramateko.

EZAUGARRIAK:

- ZUK NAHI DUZUN BEZALA PERTSONALIZATUA
- Oihalaren neurria 85x200 cm
- Pisua: 3 kg
- Garraiorako poltsa prezioan sartua
- Diseinua + inprenta + garraioa
- BEZ bane

115€

HILABETE HONETAKO
ESKANTZA



ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 7 - 1-1 31770 LESAKA
T. 948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA
Tel.: 948 63 54 58 Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Misterio eta gezurrez inguratutako jendeak dira agoteak. Beraien artean eskulangile, hargin, zurgin eta musikari bikainak izan ziren, baina mendetan guttietsiak izan ziren beraien sinismenak kristau fedetik urrun xamar zeudelako, Amalurra bakarrik gurtzen zutelako. Beraien historia enigma bat da, baina bere esistentziaren probak iritsi zaizkigu».

Xabier SANTXOTENA
Bozateko eskultorea
D. NOTICIAS 2014.05.12



«Kontzertuetan entzuleekin harremana mota desberdinetakoa izaten ahal da. Nire musika isilik entzutekoa zela uste nuen. Obsesio bat banuen horrekin. Horrek ez duela zentzurik konturatu naiz. Egon dira kontzertuak jendea isil-isilik, tarteak errespetatzen, bukaran txalotzen. Egon dira kontzertuak jendea oihuka, dantzatzen... Ez dut sortu harreman konkretu bat».

Joseba BALEZTENA
Berako musikaria
Iparr EH HITZA 2014.05.09

11 galdera labur

Nor dugu Kiko Gartxitorena?

Saltxeroa, lagunei laguntzeko prest egoten den pertsona eta herriagatik lanean aritzea gustuko duena.

Zein afizio dituzu?

Mendian ibiltzea, bizikletan, herri kiroletan umeei erakusten...

Saltxero fama duzu... ongi irabazia?

Herriko alkatea naiz, zahar etxe-ko patronatuan nago, Xorroxinen berri emaile, Baztandarren Biltzarrean ere karroza egiten dut... nahiko perexile naiz bai.

Kantuan ere trebea omen..

Bai, Gaztelu taldearekin eta Mahai inguruko kantuetan ere ibili izan naiz Anjel Mariezkurrenarekin.

Bestetan alkateak itxurak mantendu behar ditu?

Ezta pentsatu ere. Gustukuak ditut bestak eta Berroetan ez du alkateak itxura mantendu beharrik, eskerrak!

Bestetako egunik gustukoena?

Ortzilerian egiten dugu parranda polita!

Ekitaldirik gogokoena?

Hainbertze gauz ba-

dire, baina bat errateagatik, Ortzileriko afaria, baztan zopak izaten dire. Egun horretan indartsu eta besta gogoz egoten gara.

Eguneko besta edo gauekoa nahiago?

Bietan ibiltzen naiz gustura, nahiko gau txoria naiz baina egunekoak ere arras maite ditut. Baztandarren biltzarra dut arras gustukoa.

Zerk egiten ditu berezi Berroetako bestak?

Famili giroko besta izateak. Herri tarrar da eta jende beretsua ibiltzen gara normalean bestan.

Zer du Berroetak soberan eta zer faltan?

Faltan ostatu tarr bat kafetxo bat hartzeko eta soberan, deus ez. Majo gaude gauden bezala.

Amets bat?

Konfesarzeko modukoak gutti...(irriz)



Kiko GARTXITORENA → Berroetako alkatea

FAUSTINO
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0934) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

KARLOS ALZUGARAY D.O
OSTEOPATA | FISIOTERAPEUTA | COL. 178

TRATAMENDUAK:

- Umeak jaio berriak
- Buruko minak
- Bihurdurak
- Trafiko istripuak
- Anginak
- Bizkarreko minak
- Kirol lesioak
- Masajeak

Itzea, 20 - behea BERA | T. 948 630 187 - 607 853 205

GIZARTEA

LANA → MANIFESTAZIOA EGIN ZUTEN GASTEIZEN

Lantegiaren etorkizunaren alde borrokan hasiak dira Zalaingo langileak

24 orduko greba ere egin zuten hilaren 12an eta mobilizazio gehiago iragarri

TTIPI-TTAPA

Zalain Transformados-Condesa taldeko langileek 24 orduko greba egin zuten maiatzaren 12an. Lehengaia falta dela eta lantegiaren etorkizuna arriskuan gera daitekeela salatu du Lantegi Batzordeak: «Ez dago informazio garbi-rik eta zenbait instala-

kuntza gelditu behar izan dute». Hau dena salatzeko eta konponbideak eskatzeko manifestazioa ere egin zuten Gasteizen egun berean. Condesa taldeko Iruñeko eta Legutioko enpresa batzordeetako ordezkariak ere lagun izan zituzten.

Gasteizko manifestazioaren ondotik irakurri zuten agiriak dioenez, «egoera trakets hau lehenbailehen gainditu beharra dago». Izan ere, enpresak nahiko lan zama omen du era normalean lanean jarduteko eta langileen batzordearen erranetan, «badakigu Zalain hornitu beharreko le-



UTZIITAKO ARGAZKIA

Zalaingo eta Condesa taldeko bertze lantegietako 200 bat lagunek manifestazioa egin zuten Gasteizen maiatzaren 12an.

hengaia egina dagoela, hornitzaile lantegietan, baina arazo finantzierengatik, Zuzendaritzak dioenez, gaia bertan geldirik daukate». Denbora gehiegi luzatzen ari da egoera honetan eta honela segituz, ondorio larriak izan daitezkeela usate du Lantegi Batzordeak. Horregatik, «gertatzen ari denari buruzko informazio osoa eta zintzoa izan arte ez dugu onartuko Zuzendaritzak

aurkeztu nahi dituen erdi bideko neurririk». Gainera, Administrazio publikoek esku hartzea eskatu dute, «operazio horietan iruzurrik eman ez dadin eta jarduera egonkortu dadin».

Joan den astean bi orduko elkarretaratzek egin zituzten langileek lantegi atarian eta maiatzaren 27tik ekainaren 6ra arte greba egitearen erregistratzea egin zuten.

Condesa Taldeak honako enpresa hauek ditu: Condesa Fabril eta Condesa Inox Legution. Perfil en Frio Berrioplano-Iruñean. Zalain Transformados eta Mecanizados Zalain Lesakan. Mieres Tubos Asturiasen. Tumesa Saguntan eta beste 4 lantegi Europan (Frantzia, Belgika, Alemania eta Italian). Enpresa hauetan 1700 langiletik goitik egiten dute lana.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

SOBEKO
Frian Auzoa - LESAKA
Tfno: 948 637 806

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta barnizatzen dittut
Sakelekoa: 637 836 073 - LESAKA

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Barria erosi taldea

MARTIKO
Martiko
Pol. Zalaingo, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Hastekuntza editatzen eta erabiltzen

DENDA ORDUTEGIA:
astelehenetik ortziralerara
08:00etatik 17:00etara

PUNTA-PUNTA TEKNOLOGIA iritsi da Bortziriak-era

ib ibold X-U
Telefono LIBREA
Zurra edo Beltza
Pantaila 4,7"
Android 4.2.2
Kamera 13 MP
2 bateria eta 2 karkasa
249€

ib ibold IBT92
Tatut 9,2"
DUAL CORE
RAM: 1 GB DDR3
8GB MicroSD
erretina 3200 arte
Bortziriak integratuak x 1W
Wi-Fi 802.11B/G/N
Android 4.2.2
129€

SPC internet 5604
Ebook 16"ko pantaila 12GB
Memoria-bartaren inakungailua
95€

Bidasoa, 45. 31780 Bera. 948 630377. 948 631091. info@bortziriak.com. www.bortziriak.com

GIZARTEA → ELKARTASUNA ENAITZEN ALDE

Haurrentzako besta antolatu du Enaitz Gara Taldeak ekainaren 7rako

Egun horretan egingen dute hamar saskien zozketa

TTIPI-TTAPA

Enaitzi laguntzeko elkartasun ekimenek aitzinera segitzen dute eta Enaitz Gara Guraso Taldeak antolatuta ekainaren 7an egingen den haurren bestaren atarian, ekitaldi gehiago izanen dira.

ESNEA ENAITZEN ALDE

Maiatzaren 31n, Donzteben egingen den Malerrekako Egunean, *Litro bat esne Enaitzen alde* ekimena egingen dute. Esne brikaz eginiko bi horma handiren giblean, bi mezu egonen dira gordeta. Euro batekaritzen duen orok litro bat esne kentzen ahalko du brikaz eginiko hormatik eta ekarritako euro bakoitzeko, litro bat esne jasoko du. Hala, pixkanaka, giblean gordeta dauden bi mezuak irakurri ahal izanen dira. 10:00-etatik eguerdira bitarte egonen da.

DOKUMENTALA

Ekainaren 1ean *Nel Giardino Dei Suoni* (Musikaren Lorategian) do-

kumentala ikusteko aukera izanen da. Wolfgang Fasser musikaterapeuta itsuak ezgaitasuna duten haurrei egungo gizarateak ezarritako oztopoak gainditzeko lagunduko die musika oinarri hartuta. 12 urtetik goitikoendako da eta filma italieraz eginga badago ere, gaztelerazko azpititulua ditu. Kultur Etxean eskainiko dute, 17:00-etan, eta sartzea borondatezkoa izanen da.

EGUN HAUNDIA

Ekainaren 7rako haurrentzako besta prestatu dute kiroldegi kanpogan, orain arte Enaitzen alde egin denak izan duen babesa eskertzeko. 11:00etatik 19:30era musikaz alaiturik, puzgarri, eskulan eta ezin duendako jolasetan parte hartzeko aukera izanen dute haurrek. Taloak, krispetak eta pintxoak jan eta tragoa hartzeko modua ere izanen dute. 19:00etan, berriz, merkatarien laguntzarekin osatutako hamar saskiaren zozketa egingen dute. Horrez gain, sarreraren haurrei doan banatuko dizkieten zenbakiekin Pirritx, Porrotx eta Marimototsen produktuak zozketatuko dituzte. Zenba-



UTZITAKO ARGAZKIA

Felix Errandonea Memorialean txirrindulari frantziarra garaile

Junior mailako txirrindulariei zuzendua, XXXVIII Felix Errandonea Memoriale burutu zen maiatzaren 10ean. Orthezziene taldeko Ciril Barthe frantziarra nagusitu zen, 70 kilometroak betetzeko ordubete, 51 minutu eta 32 segundo behar izan zituen. Denbora berean sartu ziren Quesos Albeniz taldeko Eneko Aramendia eta Asesores de Navarra taldeko Diego Martinez Morentin. Hain zuzen, taldeka ere Asesores de Navarra taldea nagusitu zen. Argazkian, lasterketako hiru lehenbizikoak ageri dira Angel Ponbar Gure Txokoako presidentarekin. Hain zuzen, Gure Txokoatik eskerrak eman nahi dizkiete «lagundu ziguten guziei, bai moto eta kotxetan ibili zirenei, baita bidegurutzetan egon zirenei ere. Bereziki Lesaka eta Igantziko lagunei».

ki sarituak TTIPI-TTAPA, Xorroxin, eskualdeko ikastetxe, zozketako boletoa saldu diren denda eta ostatuetan eta *enaitz lagundu.org* atarian argitaratuko dituzte eta sarituek hilabeteko epea izanen dute agertzeko.

Guztiok Elkartearen aldeko jaialdia

Berako Abesbatzaren ekimenez, Guztiok Elkartearen alde kontzertua antolatu dute maiatzaren 31rako. 17:45etik aitzinera trikitilariak herrian barna ibiliko dira eta 18:30ean Altzateko Plazan jaialdia hasiko da hainbat talderen parte-

hartzearekin: Gure Txokoako dantzariak, Guztiok Elkarteko gurasoak, Amaia Leiza dantzariak, Irungo Carlos Zapirain areto dantza eskolako ki-deek, Bera, Igantzi, Donztebe, Lesaka, Bera eta Berako Jubilatuen abesbatzek eta Berako Bandak parte hartuko dute. Kontzertuak ordubeteko iraupena izanen du eta euria eginez gero, Altzateko frontoian izanen da.

Bestetako azal lehiaketa

Aurtengo bestetako azal lehiaketaren deialdia egin du Kultur Batzordeak. Lanak Berako besta giroa islatu beharko du eta *Berako Bestak 2014* testua agertu beharko da nahitaez, bertze testurik gabe. Ekainaren 27ko 13:30 baino lehen aurkeztu beharko dira Herriko Etxean.



Ba al zenekien

Nafarroako bertsopaper lehiaketan lehen saria eskuratu duela Ekhiñe Zapiain Arlegik, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6 mailan.



LESAKA

KULTURA → EKAINAREN 8AN BIGARREN EDIZIOA

Margoketa azkarreko lehiaketa antolatu du Beti Gaztek

Aitor AROTZENA

Elias Garraida II. Margoketa azkarreko lehiaketa eta Haur Margoketaren Eguna antolatu ditu Beti Gaztek, Udala-ren eta Lesakako Zerbitzuen Elkartearen laguntzaz ekainaren 8-ra. Helduei dagokienez, lanak goizeko 9etatik 10etara zigitatuko dituzte eta 13:30etik 14:00etara bitartean aurkeztu elkartean. Lehenbiziko saria 500 eurokoa izanen da eta bigarrena 300 eurokoa. Herriko margolarien artean obrarik hoberenak 150 euroko saria jaso-

ko du. Tikienei dagokienez, hiru maila bereiziko dira: A maila (LH 1-2); B maila (LH 3-4) eta C maila (LH 5-6). Lehiaketa 11:00etan hasi eta 13:00etan bukatuko da eta maila bakoitzeko marrazki hoberenek saria izanen dute.

Arte erta artisau azoka

Aitzineko alean aipatu genuen bezala, Bidasaldeko arte eta artisautzaren azoka egingen da maiatzaren 31n. Bertan ageri den egitarauaz gain, maiatzaren



ARGAZKIA: JUANJO GUERRERO

Ekitaldi xumea eta 120 txirrindulari Salvador Yanciren omenez

Salvador Yanci zenaren omenez lehen aldiz antolatutako martxa zikloturistan 120 txirrindularik hartu zuten parte maiatzaren 11n. Omenaldi xume bezain hunkigarria eskaini zitzaion Salvador zenaren familiari. Amaia Ostolaitz eta Ander Abuin dantzariak, Markel Maia txistulari zutela, aureskua dantzatu zieten Marisol Irigoin alargunari eta Javier eta Leire seme-alabei, baita bertze senideei ere. Ondotik, txirrindularitza arloan Yancirekin batera hainbat lanetan aritu zen Pedro Bañares doneztebarrak lore-xorta eman zion alargunari. Familiak eskertu nahi izan zuten omenaldia eta parte hartu zuten txirrindularien borondatea.



Ba al zenekien

Nafarroako bertsopaper lehiaketan lehen saria eskuratu dutela Orti Arotzena Portuk (LH 3-4) eta Uxue Mesa Garmendiak (DBH 1-2) eta aipamena Iratxe Muxika Carrionek (LH 5-6)

FLASH

Musika Eskolako matrikula

2014-15 ikasturterako ikasleek ekainaren 2tik 13ra eta irailaren 1etik 12ra eman dezakete izena Herriko Etxean edo Kultura Teknikariaren bulegoan, astelehenetik ortziralerara 08:00etatik 14:00etara.

Haurrentzako euskal karaokea

Maiatzaren 31n, larunbat arratsaldeko 5etan



haurrentzako euskal karaokea antolatu du Arrano elkarteak, udalaren laguntzaz Harriandoan.

Bixente Igartzabal Lanzaroten

Denboraldiko lehen proba egin zuen maiatzaren 17an Igartzabalek, Lanzaroteko Ironmana. 2.300 kirolarien artean 157. izan zen sailkapen orokorrean eta 27. bere adinean.

Irantzu Pastor Katalunian

Herriko argazkilariak Euskal Herriko gatzkari buruz 2007an egindako *Oroimena eta ametsak* lana erosi zuen bere garaian Bartzelonako Unibertsitateko Ondare Artistikoak. Orain, unibertsitate horretako Arte Ederren fakultatearen 35. urteurrenako erakusketarako aukeratu dute Irantzuren lana.



UTZIITAKO ARGAZKIAK

Sanferminak iragarriko dituen kartela eta besten programako azala eta kontrazalean joanen diren irudiak aukeratu dituzte. Karteletan, Virginia Etxepareren *Aureskua* izan zen lehiaketako irabazlea (ezkerrean) eta portadarako, Juan Carlos Pikabearen *Besta zurrumbilua*. Kontrazal lehiaketa margolariaren alabak, Mayi Pikabea Perinnek irabazi du.

BORDA
ISOLAMENDUAK
Termikokoak | Akustikokoak | Suaren kontrakoak
PLADUR LANAK
Enberritzaileak • Enkuntza • Industriadariek
Dekorazioak • Pintura lanak • Sobai modurak
T/F: 948 637 546 • M: 609 477 277
LESAKA • bordaisolamenduak@telefonica.net

Lentzea
Berruntza
Martxa
Jantziak
Pintak
kattagoria
Beneke plaza 10 30770 Lesaka
T: 948 627 514

IRU BIDE
Enberritzaileak
Berruntza, 31 Lesaka
Tel: 948 637 127

KATUETAKO POSTALAK
Berruntza, 31 Lesaka
Tel: 948 637 127

ETXALAR

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 1EAN

XXII. Gasna feria eguna igandean

Egitarau zabala antolatu du Altxatak

Iruñe eta Itsaso

Egitarau zabala antolatu du Altxatak ekainaren 1eko XII. Gasna Feria egunerako.

Goizeko 10:30ak alderako frontoi ingurua artisauez jantziko da. 11:00ak arte izanen da gasnak entregatzeko epea.

Berrikuntza bat izanen da aurten. I. goxo topaketa egingen da. Honen helburua etxeetako postreen inguruko jakintza zabaldu edo elkarbanatzea da. Aurten goan gasna tarta da aurkeztu beharrekoa. Eguerdia baino lehen nahi duenak gasna tarta eta honen errezeta ekarri behar ditu frontoira. Parte hartzen dutenak bazkaria doan izanen dute eta artisauek produktuen lote baten zozketan sartuko dira. Bazkariko txartela erosteko eta goxo topaketarako izena emateko

kartelak Elutsa eta Herriko ostatuan jarrita daude; 67031920 telefonora deituta ere egin daiteke.

Hauxe da prestatu duten egitaraua:

- 12:15ean herriko tritilarien saioa.
- 13:30ean ardi gasna onenaren saria banatuko da.
- 14:30ean bazkaria frontoian.
- 18:30ean herriko dantzarien saioa.

Goiz osoan eskulan erakusketa izanen da eskola zaharrean eta nekazaritzako tresneriaren erakusketa Iriondoan. Altxatak talo postua jarriko du frontoian goizean eta bertako kideek egindako pate, goxogintza produktu, edari eta barra ere egonen dira aukeran. Lortutako dirua Altxatari laguntzeko erabiliko da.

Igerilekurako bi langile behar dira

Udal igerilekuen funtzionamendu, garbiketa eta mantentze lanak egiteko esleipen deial-



ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN

Gure esku dago

'Gure esku dago!' ekimenaren aurkezpena maiatzaren 9an egin zen Kultur Etxean. Nahi duenak aukera izanen du ekainaren 8an Iruñetik Durangora egingen den giza katean parte hartzeko. Horretarako herriko gazteekin harremanetan jarri behar da izena emateko. Gasna feria egunean postu bat egonen da plazan informazioarekin eta apuntatzeko aukera izanen da.

dia egin du Udalak. Interesatuak lan kontratua edo autonomo kontratua aurkeztu behar dute ekainaren 11 baino lehen. Baldintzak udaleko web orrian edo udal idazkaritzan daude eskuragarri.

Herriko okindegiko batzarra

Ekainaren 4an 19:00etan okindegiko batzar nagusia izanen da Herriko Etxeko bileraren aretoan. 2013ko ekitaldien kontuak ikusi eta onartzea, pasa den urteko ekitaldiko emaitzen erabilerarako proposamena, sozietatearen partaidetza eskualdaketen onespina, eskaerak eta galderak eta azkenik aktaren irakurtzea eta onartzea egingen da.



ARGAZKIA: AITOR LEARRE

Txoriak ezagutzeko ibilbide gidatua

Maiatzaren 18an ibilbide ornitologikoa egin zen Etxalarko naturazaleek antolatuta. Eguraldi ederra lagun, hoguei bat lagunek parte hartu zuten eta primerako talde giroan ibili ziren. Herritik sobera urrunduko gabe, inguruko belati, oihan eta erreka bazterretatik ibili ziren txoriak ikusten. Ikusitako hegaztien artean, sapeltsak, miru gorri eta beltzak, sai arreak, txirrisklak, enara azpizuriak, kardineroak, sorbeltzak, txorruak, kaskabeltz handiak, beleak, pareta txoriak, txinbo kaskabeltzak, buztanikara txuriak eta horiak, txepetxak, zozoa... izan ziren. Mikel Etxanizek espezie hauen bizimoduaz solastu zuen eta gauza aunitz ikasi zituzten bertaratutakoek.

XAGU LIBURUDENDA

Tel / Fax BERRIA: 948 638 232

Konkontakio bidea, 7

31770 LESAKA

zatoz denak herri ezagutzera!

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USRIK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

USOA

Nekazari kooperatiba

- Bertan egindako pentxak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

ERREKALDE

PLATER KONSUMITIBAK

PLATERAK

ERREKALDE

Tel: 948 630 259 BERRIA

ERROTAR

harategia

Bertako produktuak

Etegarra, 3 - BERRIA

Tel/Faxa: 948 630 088

ARANTZA

KIROLA → MAIATZAREN 18AN

la 600 mendizale bildu ziren Mendi Itzulian

Eguraldi zoragarria lagun, herriko eta inguruko paraje ederrez gozatzeko aukera izan zen

Nerea ALTZURI

Duela bederatzirte, Ekaitza Elkartek antolatuta, estreineko mendi itzulia egin zen. Hasierako bi urteetan jarraian izan bazen ere, 2.004tik aintzinerabirurteetik behin egitea erabaki zen. Iazazpigarren edizioa izan da aurten. Joan den maiatzaren 18an, herria ia bikoiztu zen. Bortzehun eta hirurogeita zortzi mendizale bildu ziren herriko mendi zirkuaz gozatzerako. Goizeko zazpiak baino lehen, antolatzaileek guziaz prest zuten herriko plazan. Partaideak ere aski goiztiarrak izan ziren eta udaberriko eguraldi elegantea zetorrela ikusita, are ederragoa zen plazako

argazkia. Herrikoak, inguruko bailaretakoak eta eskualdetik kanpoak ere Arantzako martxa aukeratu zuten. Izenak eman, nahi zuten kafe beroa hartu eta zazpietan puntual, altxeruariarekin batera lehenengo ehun mendizaleak abiatu ziren. Segidan, gainerako guziaz mendirako bidea hartu zuten.

IBILBIDEARI BUELTA

Aurten, ibilbideari buelta eman zaio eta herriko behera beharrean, edizio honetan, gorantzko norantzkora hartu zuen ibilbidea. Medikun etxetik barna, kanpo santu eskinetik gora, Goiko Gainera igo behar izan zen, Zepurrun hurrengo kontrola izanik. Mendizale trope la harat ailegatu eta tira, hurrengo puntuan indarrak hartu zituen maldan gora jarraitu eta Ilurdi kaxkora ailegatzeko. Handik herriko mendirik altuenara, Ekaitzako tontorrera ailegatu eta beherantzko joera har-

tu zuen ibilaldiak. Xalbadorren Txabolan jatekoak eta edatekoak hartu ziren. Ondorengo pagadia eta itzalarekin bidaxkak eskertu zituzten mendizaleek. Bazterla, Oilargata, Izu, Itsaszelaita, Unanu, eta Aranibar izan ziren hurrengo puntuak. Beroaldia nabaria zen zati horretan eta hori ere nabaritu zuten mendizaleek. Ibilbidea bukatu bezain agudo, ostaturek eta elkartek prestaturiko jatekoak eta edatekoak; nahi zuen horrek dutxatzeko aukera Aterpean... eta tira, bakoitzak bere bizipenak trukatzeko aukera izan zen. Oroigarriak ere hartu zituzten: Martiko pateak eta motxila. Partaideen artean ere, iragarritako zozketak egin ziren: Lorpeneko galtzerdiak, Iparrak emaniko bi osteopatia-fisioterapia saio, Arantzako Hotela bi pertsonentzako egonaldia...

Inguru eta paisaia ederrak ezagutu dituzte eskualdetik nahiz hara-



UTZIITAKO ARGAZKIA

Mendizaleek eguraldi ederra izan zuten Arantzako mendi buelta egiteko.

tagotik etorri diren mendizaleek. Beti ere, herriko kaxkoa begibistan, Arantzako zirkoa inguratuz. Batzuk ezagutzen zuten, eta bertze batzuk lehenengo aldiz egin dute mendi buelta.

Mendian ibiltzeko ohitura duen horrek gozatu izanen zuen aurtengo edizioarekin. Izan ere, hasieran aipatu bezala, duela bi urteko eguraldiarekin ez zuen

zerikusirik aurtengoak... opari ederra izan da aurtengoa!

Lerro hauek idaztean, antolakuntzak balorazio-bilerarik ez bazuen eginga ere, Xorroxin Irratiari itzuliaren bihar munean antolatzaile taldeko kide batek eskainiriko elkarrizketan, hasierako inpresioa baikorra izan da. Makurrik gabe joan da aurtengoa eta kontent gelditu dira emaitzarekin.

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako amas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRIUN

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

zalain
JATETxea RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
www.zalainjateketa.com

GIZARTEA → 90 ETXETAN EGINA DUTE ESKARIA

Hirigintza Plana bukatzen ari da Herriko Etxea

Jendeak ikusi eta alegazioak egiteko aukera izanen du laster eta udalak herritarrekin informazio bilera egiteko asmoa ere badu

Joxean ORTEGA

Udalean Herriko Hirigintza Plana bukatzen ari direla aipatu dute, eta hemendik guttira jendeak ikusi eta alegazioak egin ahal izanen ditu.

Gainera Udalak herritarrekin bilera bat egiteko asmoa du Planaren gaineko azalpenak eman eta arrazoiak argitzeko, baita herritarren iradokizunak biltzeko ere. Beraz, adi egon!

San Juan gaua prestatzen hasiak

San Juan gaua prestatzen hasiak dira Kultura Batzordekoak eta norbaitek proposamenik balu batzordekoekin hitz egin dezala ahalik eta azkarren!

Auzolanerako zerrenda

Auzolaneko zerren Udaletxean paratu dute, orain falta dena jendea omen da. Animo!

Liburutegian auzolanak egiteko prest direnei berriro hasiko direla abisatzeko ohar hau zabaltzen dugu. Joxeane-kin batera egiteko direnez, ordu eta egun hauetan eginen dira hemendik aintzinerara: ortzegun eta ortziraletan arratsaldeko 4etatik 6ak bitarte. Bakoitzak ahal duenean, Joxeani telefonoz deitu eta txanda hitzartu lehen aipatutako egun eta orduetan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Xabi Telletxearen omenez IV. BTT jautsiera jendetsua

80 bat txirindularik parte hartu zuten maiatzaren 17an Xabi Telletxea zenaren omenez Biltokik antolatutako laugarren mendi bizikleta jautsieran. Azken urteetan bezala, Mungiako Iraitz Etxebarria izan zen garaile. Bestalde, aipagarria izan zen eguraldia lagun plaza inguruan bildu zen jendetza.

Biltoki Oartzunera

Biltokik ekainaren 7an Oartzunera eginen du ibilaldia eta bertan

bazkaria. Biltokin izen emateko azken eguna ekainaren 1a da. Ateraldia egiteko 15 lagunek

izen eman beharko dute guttienez, eta kopuruen arabera autobusa alokatuko da.



**HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA
DUTEN ETXEBIZITZEN PROIEKTU ETA
ZUZENDARITZA TEKNIKOAK**

Fernando Orset Mauleon arkitektura
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007



BERTIZ

GIZARTEA → PARTZUERGO TURISTIKOA

Baserrietako jakiak eskaintzen dituzte aurten ere zortzi jatetxetan

Ekainaren 22ra arte egingen da Udaberriko Gastronomia Jardunaldien bigarren edizioa

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean, Bertiz Partzuergo Turistikoko jatetxe elkarteak *Gure Baserrietako jakiak* jardunaldi gastronomiko berriak martxan jarri zituen eta lortutako arrakasta ikusita, aurten ere bigarren edizioa abiatu da. Jardunaldi hauen helburua, Baztan-Bidasoko baserrie-

tako produktuen kalitateari merezi duten indarra ematea da, udaberri sasoiko produktuetan oinarrituz eta baita, zonaldeko gastronomia tradizionala bulka-
tzea ere.

Aurtengo jardunaldiak, maiatzaren 23an hasi ziren eta ekainaren 22ra bitartean egingen dira eta zonaldeko zortzi jatetxetan dastatu ahal dira Jardunaldi hauetarako espreski prestatutako menu bereziak: Iruritako Olari jatetxean, Arizkungo Ordoki erretegiaren, Donamariako Bentan, Arantzako Burlada jatetxean, Alkaiagako Zubiondo jatetxean, Oronoz-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bertizko Partzuergoko Laura Elizagoien, Bertiz jatetxe elkarteak Maria Inbuluzketa lehendakari ordea eta Ruben Garate lehendakariarekin, jardunaldien aurkezpenean.

Mugairiko Urgain jatetxean, Elbeteko Posadan eta Urdazubiko Ikaburua jatetxean.

Jatetxe hauetan aurkituko ditugun menu bereziak produktu artean, bildotsa, baratzeiko produktuak, gaztanbera, ilarrak, baserriko oilaskoa, gazta, txuleta... eta bertze hainbat bertako plater goxoetan.

Menuak 17 euro eta 25 euro artean dabilta eta jatetxe batzuetan menuak egunero das-

tatzen ahal diren arren, bertze batzuetan, asteburuetan bakarrik eskaintzen dituzte. Menuen informazio osotua, www.consorciobertiz.org webgunean aurkitu daiteke.

Jardunaldi hauek boroiltzeko, bertan partehartzen duten guztiei, opariak banatuko zaizkie, produktu gastronomiko eta turistikoekin. Jardunaldi hauek Bertiz Partzuergo Turistikoaren laguntzari esker antolatuak izan dira eta

Nafarroako Inurrieta upeltegiari eta Lacturale esneei ere eskerrik beroenak eman nahi zaizkie, mota honetako proiektuetan lagundu eta jardunaldi hauen babesle izateagatik.

Udaberriko *Gure Baserrietako Jakiak* Jardunaldi gastronomikoen informazio osotua, Bertiz Partzuergoaren webgunean, sare sozialetan eta zonaldeko turismo bulego eta jatetxe partaideetan aurkitu daiteke.

ORBELA
BEINTZAKO GOSTATIA
Idia - Mikel
Tel: 940 430 014
BEINTZA-LABAREN
www.orbela-beintza.com

F. LANCHAS
Akupeladorea eta hermitatzailea
Parket eta parket flotatzailea
Jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Jaio berrientzako behar duzun guztia

losta mendi *Teikia*

Bezere txartelarekin sekulako abantailak
Eskaintza bereziak

GIPUZKOAKO 500m² erakusketarik zabalena duen puerikultura denda
Easo, 51 • Donostia • T. 943 470 244

Araletxu, 3 • IRUN • T. 943 638 223
www.maxibebé.org **maxibebé**

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESABA: Biltzila, 71-behea • Tel: 948 637 050 • Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 • Tel: 948 133 328 • Faxa: 948 133 713

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Giro ederra izan zen Asteburu Kulturalean

Xibolako gazta izan zen onena aurkeztutako 10en artean

Maidar PETRIRENA

Asteburu Kulturaleko giro ederrean joan zen.

Maiatzaren 16an, Guraso Elkarteak antolatuta jokuak izan ziren plazan. Kokorrenak 3 taldetan banatu eta herri kirolean aritu ziren. Bitartean ttikienak aurpegiak pintatzen. Aulkiaren joan ere aritu ziren, baita koreografia batzuk dantzatzen ere. Eguraldi ederra lagun arratsaldeezin hobea pasatu zuten, tartean txokolatea hartuz. Ondoren Ulibeltzak elkartearen solasaldia eta bideo emanaldia izan zen Mikel Astiazarenen eskutik. Euskal herrian barna bizikletaz ibili da eta irudi zoragarriekin osatutako bideoa eskaini zuen. Ondotik afaria izan zen Ulibeltzak Elkartean. Bustitzeko mustxapelketan 10 bikotek parte hartu zuten eta Julen eta Urko Ibarra suertatu ziren txapeldun. Bigarrenak, berriz, Aimar Las-tiri eta Iñigo Agesta.

Maiatzaren 17an oinez eta bizikletako ibilbideak egin ziren. Bizikletaz 15ek parte hartu zuten, oinez berriz 7k. Ander eta Unax Larraburu anaiek (4 eta 6 urtekoak), Markel Agesta lehengusuak (7 urte) eta Koldo Herrerak (10 urte) parte hartu zuten. Eguerdian Ariztigain kanpi-

nean gazteek bazkaria egin zuten musikaz alaiturik. Ondoren herrian barna poteoan ibili ziren. Egun osoan Jokulandia ere izan zen.

Arratsaldean Male-rrekako egunerako finalerako kanporaketa jokatu zen Bustitz ostatuan. 11 bikotek parte hartu zuten eta Jose Luis-Jose Miguel eta Patte-re-Koro bikoteek lortu zuten Donezteberako txartela.

10 GAZTA ETA 28 POSTU

Maiatzaren 18an VI. artisau feria eta herriko gazta lehiaketa egin ziren. 28 postu izan ziren ikusgai frontoian. Jendetza ibili zen egun osoan. Goizean aurkeztutako 10 gaztak dastatu zituzten Rakel Urtxegi, Mañoli Agirre eta Arkaitz Vicentek. Atsaldean herriko haur dantzarien txanda izan zen plazan. Hain eguraldi onarekin jendea animatu zen ikustera eta egia errateko emaldi oso polita eskaini zuten.

Ondoren saldutako 1000 boletoen zarea zozketa egiteko tenorea ailegatu zen baita gazta irabazlearen izena jakiteko tenorea ere. Zarea- ren irabazlea Miren Hernandorena herritarra izan zen. Gazta irabazlea, berriz, Xibolako Xanti Espelosinena, bigarrena Primenekobordako Justa Ibarra eta hirugarrena Migeleneko Josefina Jorajuria. Asteburua ezin hobeki ateratu da eta eguraldiak ere lagundu du.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA ETA IZASKUN ALZURI

Eguraldia lagun, Asteburu Kulturaleko ekitaldi guztietan partehartze handia izan da. Igandean jendetza bildu zen frontoiko eskulangileen azokan.

expert

BORTZIRIAK

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

KONPONKETAK ere egiten ditugu

Bidasoa, 45. 31780 Bera 948 630377 948 631091
info@bortziriak.com www.bortziriak.com

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 6AN ETA 7AN

Errekaren Eguna ekitaldiz gainezka dator

Eskubaloiko beteranoen eta Izarren taldea aurrez aurre izanen dira larunbat arratsaldean

TTIPI-TTAPA

Errekaren Eguna ospatuko da ekainaren 7an, baina bezperan ere zenbait ekitaldi antolatu ditu Errekak, Udala- ren laguntzaz.

ORTZIRALA, EKAINAK 6

- 20:00: Mendi-diapositibak Peioko Larrazaren eskutik Leku Eder Zineman: *Atzera begira*.
- 22:00: Santa Luzia Plazan Mus Txapelketa.

LARUNBATA, EKAINAK 7

- 09:30 hasita: kiroldegian eskubaloia: alebinak, infantilak eta kadeteak.
- 12:00: Errekako Judo Eskolako erakustaldia.

- 16:00: Eskubaloia: Prealebinak.
- 17:30: Erreka- Izarren taldea (Asobal Mailako jokalariez osatutako taldea). Partiduen artean Errekako Dantzarien erakustaldia. Ondoren zozketak eta sorpresaren bat.
- 21:00: Herri Afaria Santa Luzia Plazan (txartelak erosi Titi Ostatuan ekainaren 4a baino lehen).
- Gaupasa: Endara Deejays (Oihan Vega).

Herri Krosa ekainaren 15ean

Aitzinera begira ere lanean segituko du Errekak. Herri Krosaren XXXVI. edizioa antolatu

du ekainaren 15ean. 10:30ean abiatuko dira kategoriatikienetakoak eta 11:30ean kadete mailatik beterano bitartekoak. Sarietako dagoenak, gizaseme nahiz emakumezkoetan 150 euro jasoko dituen lehenbizikoak, 90 bigarrenak, 60 hirugarrenak, 45 lau- garrenak eta 30 bosgarrenak.



Ba al zenekien

Malerrekako Egunaren baitan, Litro bat esne Enaitzen alde kanpaina eginen dela. Esne brikaz eginiko bi horma handiren gibelean, bi mezu egonen dira gordeta. Euro bat ekartzen duen orok, litro bat esne kentzen ahal du brikaz eginiko hormatik. Piskanaka, gibelean gordeta dauden bi mezuak irakurri ahal izanen dira.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

22 ahari aurkeztu ziren lehiaketara Udaberriko Ferian

22 ahari aurkeztu ziren Udaberriko Feriako lehiaketara, sekula baino gehiago. Mutur beltzen artean, Donamariko Zabalteneko Joxe Mari Indak aurkeztutako bien- tzat izan dira lehen bi sariak. Beintza-Labaiengo Dolareako Jose Mari Etxeberri- rentzat izan zen hirugarren saria. Mutur gorrietan, lehen saria Oizko Telletxeneko- bordako Lucio Telletxeak irabazi zuen, bigarrena Oizko Agortenekokordako Mari Jose Urrozek eta hirugarrena Sunbillako Bixarnekobordako Beñardo Bazterrikak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Domina uzta Errekako judo taldearentzat

Errekako Judo sekzioak emaitza bikainak lortu ditu, 8 domina eskuratu Nafarroako Kirol Jokuetan. Benjamin mailan, urrezko dominak jaso dituzte Saioa Atxalandabaso Iribarren eta Markel Jabalera Juane- nak, zilarrezko domina Ivan Arambel Fernandezek eta brontzezkoa Oihana Agirre Urrozek. Alebinetan, Joseba Bengotxea Sapuppo zilarrezko domina gol- koratu zuen eta Eñaut Setoain Gartxitorenak eta Aritz Zulaika Irigoienek brontzezkoa. Infantiletan, urrezko domina lortu zuen Cristina Arambel Fernandezek.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarnak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 458 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

AMEZTIA

HOSTALA BTT ZENTRUA OSTATUA JATETXEA

ASTEBURUKO MENUA	18 €	HAURRENTZAKO MENUA	10 €
------------------	------	--------------------	------

2tu gaurerak...

ENTZALADAK PASTA FRESKOA	SASOIKO BARAZKIAK PLATER KONBINATUAK
-----------------------------	---

Ogitartekoak, sandwich-ak, hanburgesak...

T. 948 450 026 | **DONEZTEBE** | www.ameztia.com

MALERREKA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 31N

Malerrekako Egunaren hirugarren edizioa egingen da Donezteben



ARTXI BOKO ARGAZKIA

Urtero bezala, musikak garrantzia izanen du Malerrekako Egunean.

Omenaldia eskainiko zaie herriko 16 kultur eta kirol talderi

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitatean dauden hamahiru udalerrietako herritarrek Donezteben bilduko dira aurten, hirugarren aldiz egingen den Malerrekako Egunaren baitan. Lehen bi edizioetan Zubietan eta Eratsunen izandako arrakasta errepikatze-ko asmoz, egun osoko besta antolatu dute maiatzaren 31rako.

Goizean, 10:00etan, harrera ekitaldia egingen da Bearzana plazan eta herrietako ordezkariak

egunari hasiera emanen diote. Doneztebeko Udalak herriko 16 kultur eta kirol elkarteri eskainiko dien omenaldia- ren ondotik aureskua dantzatuko dute eta gosaria eskainiko zaie herrietako ordezkariak. Musika Eskolako musikariak ibiliko dira herrian barna.

Aldi berean, 10:30etik 14:00etara, artisauak eta talogileak izanen dira eliz atarian. 10:30etik 12:30era dantzariak ariko dira Bearzana plazan, Mendi Abesbatzak ere bere emanaldia eskainiko du eta buruhandiak ibiliko dira herrian. 12:30etik 14:00etara betiko ofizioen erakustaldia egingen da Santa Luzia plazan eta 14:00etan paella jatea

eginen da eliz atarian, Malerrekako Kantuz-en parte hartzen duten abeslariak lagunduta.

Arratsaldean, berriz, 16:00etatik 17:00etara muxikoak izanen dira Santa Luzia plazan Musika Eskolako musikariak lagunduta eta ordu berean hasi eta 18:00 arte Malerrekako Mus Txapelketaren finala ejokatuko da. 17:00etatik 18:00etara berendua (txokolatada) izanen da umeentzat Santa Luzia plazan, buruhandiak kalejiran, Musika Eskolako musikariak herrian barna eta aizkora apustua Bearzanako frontoian. 18:30etik 19:30era laxoa partida jokatu da Bearzana plazan eta pilotaren inguruko erakusketak Kasino elkartearen.

16 OMENDUAK

Erreka KE, Laxoa Elk., Doneztebe FT, Mendi Abesbatza, Ezpelura, Txistulariak, Biherri, Guraso Elkartea (Mendaur, Erreka, Askin eta Agorreta), Doneztebarrak, Dantzari Tikiak, Gazte Burrunba, Arkupeak eta Erraldoi konpartsa

20:00etan zozketa egin eta mus txapelketako sariak banatuko dituzte Santa Luzia plazan eta hurrengo urteko Malerrekako Eguna antolatzeko lekukoa ere orduan pasatuko diote Doneztebeko udal ordezkariak Elgorriagako. "Malerreka leihotik begira" lehiaketaren

sari banaketa ere egingen da. Argazki eta literatura lehiaketa honetan Malerrekako eskoletako neska-mutikoei hartu dute parte eta arrakasta handia izan du.

21:00etan joaldunak atera eta 21:30ean afaria eskainiko da Santa Maria jatetxean. Gaurditik aitzinera musika izanen da Santa Luzia plazan Oharkabe taldearekin.

AUTOBUS ZERBITZUA

Herri afarirako txartelak Malerrekako Mankomunitatean eskura daitezke, edo 948 451746ra deituta. Egun guztian autobus zerbitzua antolatu dute Malerrekako herri guztiak Donezteberekin lotuz.

Terrazako eta lorategiko mobleen erakusketa eta aukera zabala

josta mendl

Udarako jostailu guztiak Jostamendin Letxunborro etorb., 86 • IRUN

kukuka

KARRO-ARGAZKIA

ttipi txartela

%10eko
DESKONTUA
pajama eta barruko arropetan

ITUREN

GIZARTEA → IRAKASKUNTZA

Azken txanpan sartuak dira Pulunpa eskolan

Kanpaldi eta ateraldietan hasiak dira eta ekainean goizez bakarrik izanen dituzte klaseak

Arkaitz MINDEGIA

Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleak azken txanpa edo hirulekoan sartu dira eta azken klase eta ateraldiak ere burutzen ari dira. Maiatz hondarrean 2. eta 3. ziklokoak eta Haur Hezkuntzakoak kanpaldietara joan ziren. Haur Hezkuntzakoak Bertizko Zabala etxera joan behar dute egun bat lo egitera eta bi egunez inguruan dauden xoko eta lekuak ikustera. 2. eta 3. ziklokoak Gipuzkoaldean eginen dute kanpaldia, hain zuzen Hondarribian.

Bertzalde ekainean klasea goizez bakarrik izanen dute eta iada burubelarrri daude sarturik ikasturte bukaera presatzan!

Dantza luzea

Ohiturari eutsiz, Bestaberri egunean dantzatuko da Dantza Luzea herrian. Hainbat urtez galdurik egon ondok, duela 10 urte berreskuratu zuen herritar talde batek, dantza eta egun horretan dantzazeko ohitura. Horretarako, Makuso herriko txistulariak mantendu-

tako doinuak eta adineko dantzarien oroitza-pen eta irakaspenak baliatu zituzten.

Beraz, badira urte batzuk dantzatzeko deia, baina azken urteetan mutil gutti daude dantzarako. Horregatik, deialdia egin zaie herriko mutil gazte nahiz zaharxagoei animatzeko Bestaberri egunean dantza luzea dantzatzera. Animatuz gero nahikoa da bertan dantzatzeko dutenekin harremanetan jartzera, entsaioetara hurbilduta.

Landa eremuko eskolen laugarren jardunaldian

Herriko irakasleek ere parte hartu zuten landa eremuko eskolen laugarren jardunaldietan. Aurten Lesakan egin ziren eta bertan Nafarroa osoko ia 150 irakasle elkartu ziren. Tailer ezberdinak egin zituzten, irakasleak talde ezberdinetan banatuta.



UTZITAKO ARGAZKIA

Enaitzen bisita Pulunpa eskolara

Pulunpa eskolan bisita berezia izan zuten maiatzaren 9an. Enaitz, Nagore eta Iñigo gurasoekin etorri zen arratsaldean eta beraiek prestatutako bideo alai eta zoragarria aurkeztu zuten. Eskolako haurrek ez zutenez detailerik galdu nahi, oso oso zintzo portatu ziren. Enaitz hasieran urduri egon arren, poliki-poliki giroan sartzen joan zen eta azkenean, abestu eta dena egin zuen. Bukaeran, eginda-ko bisita eskertzeko, eskolako haur eta maisu-maistrek ipuin bat oparitu zioten Enaitzi, egunero amets goxoak egin ditzan. Arratsalde zoragarria izan zen.



ARGAZKIA: OIHANA ELIZALDE

Aurtitzetik Goizuetara mendiz

Maiatzaren 11n Aurtizko hameka lagun Goizuetara joan ziren mendiz, goizean goiz abituta. Beste bat bizikletaz joan zen Basakabitik eta hamabiek Goizuetan bazkaldu zuten elkarrekin. Gero, buelta bezperan bertan utziak zituzten kotxeetan egin zuten. Eguraldia lagun, egun politta pasatu zuten elkarren arrimoan.

ZUBIONDO
Jatetxea
lagardologia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tel. 948 625 537

BERA
Zure inguruan klase guztietako insektuz
(xomorro, zinoorra, armiarma, kukuxu...)
eta arratoi xagutzuz gorbitu nahi baduzu,
deituz Termite eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel. 948 625 537 • Zelaia, 42 A • BERA

ARRATE ETETIKA ZENTROA
%10eko
DESKONTUA
Skayndor Eternal
kremetan

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → BESTABERRI ONDOKO IGANDEAN, EKAINAREN 22AN

Gazta onena eta txokorik politena sarituko dituzte

Berendua ere emanen du udalak

Fermin ETXEKOLONEA

Bestaberrri egunaren ondoko igandean, ekainaren 22an, gazta lehia-keta egitea eta txoko politenari saria ematea erabaki du udalak, iaz bezala. Joan den urtean saritu ziren txokoak aurten ez dute saririk izateko aukerarik. Berendua ere emanen da arratsaldeko meza ondotik, lehiaketara aurkeztutako gaztekin eta gero musika ere izanen da herriko musikariek, giroa alaitzeko.

Udal langilea

Egoitz Esarte Ba-leztana izanen da, joan den urtean bezala, uda



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Aurten maiatzaren 11n lau umek hartu dute lehenengo jaunartzea. Ezkerretik eskuinera Mikel Mendiburu, Jone Indakotxea, Ane Mendiburu eta Aitor Agesta izan dira.

aldera herriko lanetan ariko den langilea. Bide bazterrak garbitzen, desbrozatzen eta gisa-

ko lanetan arituko da egunean lau orduz. Beste sei lagun aurkeztu ziren lehiaketara, baina

berak lortu zuen puntuazio-rik altuena. Maiatzaren 14an jakinarazi zuen Mankomunitateak.

FLASH

Uritzako festa

Ekainaren 7an egingen da Uritzako festa. Joan den urteko egitarau beretsua izanen da. Prestaketak egingen dira eta prestaketa egingen dutenek gosaria izanen dute idorpean. Bazkaria ere egingen da eta bazkalondoan musika Oihana eta Oihana aurtiztarrekin.

Berriz ere eskola?

Guratso talde batek berriz ere herrian eskola irekitzeko asmoa azaldu du. Udala Hezkuntza Departamentuarekin biltzekoa da, saiakera bat egin eta ea aurrera ateratzerik baden. Duela urte batzuk ere ahalegindu ziren, baina ez zen lortu.

Mus txapelketa

Maiatzaren 16an jokatu zen herriko txapelketa. Urko Loiarte eta Dabid Juanikorena suertatu ziren txapeldun eta beraiek izanen dira herriko ordezkariak Donezteben.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**UDAKO KOLEKZIO
BERRIA**

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 • IRUÑA • 948 230 634

ELGORRIAGA

GIZARTEA → AZPIEGITURA BERRIA

Erabilera anitzeko aretoa egin dute Herriko Etxean

Fran eta Migeltxo izanen dira herriko ordezkariak Malerrekako mus txapelketan

Martin LARRALDE

Herriko Etxeko lehenbiziko solairuan erai-

kitako erabilera anitzeko gela maitzaren 18an ireki zen. Alkateak esan zuen bezala, herri guztiak erabil dezake areto hau.

Mus txapelketa

Maitzaren 15an, ortziralarakin jokatu zen mus txapelketa Herriko Ostatuan. Malerrekako Eguneko txapelketarako saillkatzea zen saria eta zortzi bikotek hartu



UTZITAKO ARGAZKIA

Manolo Ganboa, Aragoiko probaren podiumean.

zuten parte. Fran eta Migeltxo izan ziren txapel-dun eta azpitxapel-dunak Xabi eta Endika. Lehen sailkatuak izango dira Elgorriagako ordezkariak.

Manolo Ganboa bikain bizikletan

Orain dela bi urte Ma-

nolo Ganboa herritarrak irabazi zuen Miguel Indurain txirrindula lasterketa Beran. Bere zale-tasunarekin segitzen du eta maiatzaren 17-18ko asteburuan beste postu on bat lortu du. Master 40 kategorian bigarren izan da Pantikosan hasi eta Aramonen, 1788

metroko altueran bukatzen zen helmugan. Tarteetan, mendi saila igaro behar izan zuten eta, erran bezala, bigarren izan zen estatu osoko txirrindulariak bildu zituen lasterketan. Zorionak Ganbo, herritar guztiak poztzen gaituk eta segi hortan.

NARBARTE

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 7AN

Bertizaranako Eguna ezean Narbartekoa ospatuko da

Sagardotegi bazkaria izanen dute

Martin BERTIZ

Bertizarana egunari amaiera emateko erabakia hartu da aurten, baina nonbait herrian besta grina badago eta ekainaren 7an herriaren eguna antolatzea era-

baki da. Denek parte hartzeko moduko egitaraua egin da.

10:00etatik eguerdiera arte haurrendako puzgarriak izanen dira. Aldi berean frontenis txapelketako hiru finalak jokatuko dira. 13:00etan sari banaketa izanen da eta segidan sagardotegi bazkaria (txartelak dendan eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko Bertizaranako Eguna. Aurten ez da eginen.

ostatuan erosi daitezke; helduenak 34 euro eta haurrenak 10 euro baliotutela). Bazkalondoa, Djaren eskutik eramana egonen da. Arratsaldean haurtxoak baidute beren momentua eta seiak aldera txokolatada antolatua dago. Gauean bokatak eta ondoren Djaren emanaldia izanen da.

FLASH

Frontenis txapelketa

Nahi duen guztiaren dako jarriak daude paperak frontenis txapelketan apuntatzeko. Hiru mailatan banatuko da: haurrendako, mutilendako eta neskan-dako. Finala ekainaren 7an plazan izanen da.

Bertizaranan ere Gure Esku Dago

Maiatzaren 24an Doneztezteben Gure esku dago ekimenaren aldeko egunaren baitan egin ziren herri kirolean Legasa eta Narbarteko herritarrek elkarrekin parte hartu zuten taldean.

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 14TIK 18RA

Eguraldia lagun Kulturaldia arrakastatsua eta bikaina

Aste osoan
denetarik
ikasteko
aukera izan
zuten ttikienek
eta hain ttiki ez
direnek ere

IZASKUN GOÑI TELLETXEA

Aste kulturala oso arrakastatsua izan da. Eguraldi bikaina egin zuenez jende asko bildu zen ekintza guzietan. Etxeko ttikienek eta ez hain ttiek denetarik ikasteko aukera izan zuten: herrialde ezberdinetako postreak egi-

ten, panpinei arropak egiten, jaurtigailu ezberdinak, taloak... Primeran pasatzeko aukera paregabea zegoen eta halaxe egin zuten.

Ondoko hilobiko ti-poa antzerkia ere oso arrakastatsua izan zen, irri ederrak egiteko aukera izan zuten jauregi-
ra hurbildu zirenek Aitziber Garmendia eta Iker Galartza aktoreen gorabeherekin. Afaria ere giro ederrean joan zen.

Kulturaldiaren antolaketa aritu den taldearen izenean, «mila esker parte hartu eta lagundu duzuen guziei».



ARGAZKIA: IZASKUN G. T.

Giro ederra izan da Kulturaldian eta denetarik ikasteko aukera izan dute ttikienek.



Errotalde Industrialdea
31745 Aurtitz - Ituren
Tel.: 948450063 - 620886443
www.berotza.es info@berotza.es



BIOTERRA ERASKUSTAZOKAN
(FICOBA - IRUN) egongo gara **EKAINA**ren 6, 7, eta 8an

GONBIDAPENAK

Etorri nahi duenari
gonbidapenak emanen
dizkiogu



ZOZKETA

Bisitatzen digutenen artean
PELLETAZKO ESTUFA hau
zozketatuko dugu

EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK | 2014/05/25

EH Bilduk botoen ia erdia eskuratu du partehartzea %5 igo den bozetan

Azkaine, Sara eta Senperen UMP nagusitu da botoen %24rekin eta Fronte Nazionalea bigarren indarra izan da botoen %14rekin. Abstentzioa %58,34koa izan da eskualdean

TTIPI-TTAPA

Alde nabarmenarekin EH Bilduk nagusitasunez irabazi ditu Europako Parlamenturako hauteskundeak TTIPI-TTAPA-ren Hegoaldeko eremuan, botoen %49,47 eskuratu baititu. PP izan da bigarren in-

darra (%14,13). Ia herri guztietan gailendu da EH Bildu, Urdazubin izan ezik, honetan alderdi popularra gehiago izan baita. Azkaine, Sara eta Senperen, berriz, UMPk irabazi ditu hauteskundeak, botoen %24,07 lortuta. EAJ-PNB izan da biga-

rren bozkatuena Saran eta Fronte Nazionala Senperen eta Azkainen.

Eskualde osoan, hiru herritan izan da partehartzea abstentzioa baino altuagoa: Donamaria (%51,86), Elgorriaga (%52,98) eta Goizuetan (%57,17).

	Zentsoa	Partehar	Partehartzea %		Abstentzioa %		Zuriak+Nulo.	EH Bildu	EAJ/PNV	PP	PSOE	Podemos	Bertzeak*
			2014	2009	2014	2009							
ARANO	100	35	35,00	31,71	65,00	68,29	0	28	3	0	1	0	3
ARANTZA	527	222	42,13	39,46	57,87	60,54	9	151	36	11	9	2	4
ARESO	228	97	42,54	40,76	57,46	59,24	0	63	15	12	0	1	6
BAZTAN	6.097	2.241	36,75	34,92	63,25	65,08	117	940	226	566	194	118	255
BEINTZA-LABAI.	206	69	33,50	22,27	66,50	77,73	4	21	14	19	2	2	7
BERA	2.826	1.079	38,18	33,71	61,82	66,29	34	453	133	101	85	69	204
BERTIZARANA	473	197	41,65	33,27	58,35	66,73	3	105	15	25	17	10	22
DONAMARIA	349	181	51,86	42,00	48,14	58,00	7	97	25	22	8	6	16
DONEZTEBE	1.199	497	41,45	33,65	58,55	66,35	16	197	48	91	39	35	71
ELGORRIAGA	168	89	52,98	41,57	47,02	58,43	5	41	6	14	8	5	10
ERATSUN	151	53	35,10	30,19	64,90	69,81	0	15	11	11	1	2	13
ETXALAR	629	229	36,41	36,80	63,59	63,20	3	128	19	37	13	12	17
EZKURRA	147	62	42,18	30,95	57,82	69,05	2	23	4	15	5	3	10
GOIZUETA	642	367	57,17	54,13	42,83	45,87	1	317	21	11	5	4	8
IGANTZI	495	232	46,87	44,25	53,13	55,75	4	108	36	28	22	11	23
ITUREN	403	194	48,14	34,07	51,86	65,93	2	141	23	9	8	4	7
LEITZA	2.359	1.077	45,65	39,83	54,35	60,17	44	718	94	108	30	24	59
LESAKA	2.180	924	42,39	41,34	57,61	58,66	34	426	165	76	73	51	99
OIZ	109	45	41,28	34,71	58,72	65,29	1	22	8	5	3	1	5
SALDIAS	113	42	37,17	27,50	62,83	72,50	1	15	2	6	4	1	13
SUNBILLA	590	201	34,07	30,24	65,93	69,76	5	116	17	13	19	10	21
URDAZUBI	315	151	47,94	43,95	52,06	59,05	17	37	16	47	13	3	18
URROZ	153	47	30,72	25,17	69,28	74,83	1	18	9	12	2	0	5
ZUBIETA	247	118	47,77	34,51	52,23	65,49	2	90	8	4	2	4	8
ZUGARRAMURDI	177	82	46,33	45,25	53,67	54,75	5	33	10	12	5	5	12
Denetara	20.341	8.533	42,35	36,25	57,65	63,75	317	4.221	944	1.206	556	373	916

	Zentsoa	Partehar	Partehartzea %		Abstentzioa %		Zuriak+Nulo.	UMP	F. NATIONAL	EAJ-PNB	E. ECOLOGIE	MODEM	Bertzeak*
			2014	2009	2014	2009							
AZKAINE	3.513	1.584	45,09	45,12	54,91	54,88	48	421	227	149	182	160	397
SARA	1.945	655	33,68	37,01	66,32	62,99	40	155	73	125	94	51	117
SENPERE	4.460	1.969	44,15	39,88	55,85	60,12	79	437	297	277	273	172	434
Denetara	9.918	4.208	40,97	40,67	59,03	59,33	167	1.013	597	551	549	383	948

LIDERRAK GURE ESKUALDEAN

eta baita azterketa
egiterakoan CIESeK

Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 111 udalerrien
eremuan ere



ttipi-ttapa

Ttapi-Ttapa^{rekin} zure iragarkiak
eragin haundiagoa du

TTIPI-TTAPA
28.000 irakurle

D. NOTICIAS 17.000 irakurle

D. NAVARRA 11.000 irakurle

GARA 9.000 irakurle

MARCA 4.000 irakurle

BERRIA 2.000 irakurle

EL PAIS 1.000 irakurle

EL MUNDO 1.000 irakurle

BESTE BATZUK 8.000 irakurle

Sexuaren arabera

GEZURAK %40,20

EMAKUMEAK %59,80

Adinaren arabera

14-24 urte %13,50

25-34 urte %16,70

35-44 urte %10,50

45-54 urte %21,30

55-64 urte %11,80

+ 64 urte %16,20

Ikasketa mailaren arabera

IKASKETARIK GABE %4,90

LEHEN IKASKETAK %9,80

LANBIDE HEZKETA %24,30

BATXILERGOA %34,60

UNIBERTSITATEA %20,50

(Data iturria:
CIE 2014ko 1. neurketa)



SALDIAS

HISTORIA → BATEZ ERE ELIZAKO AGIRI ZAHARRETAN BEGIRATUTA

Herriko familien zuhaitza egin du Martin Urrutiak

Xaloa
Telebistak
elkarrizketa
egin dio bere
lanaren buruz

Markel LIZASOAIN

Orain dela aste pare bat, hizketa bat izandu zuten Xaloako Xabi Torresek eta Martin Urrutia Grajirenak, aspaldiko urteetan egin duen lanaren buruz, eta Interneten dago, ikusteko modua duenarentzat.

Herriko familien zuhaitza osatua izan behar du, batez ere elizako agiri zaharretan begiratuta. Bere familiako abizenetik hasitzen tiraka, eta 1683. urtera ailegatu zen. Orduantxe jaio zen Joanes Urrutia Koskorrean, eta egundaino eutsi omen diote etxe berean deiturara horri. Haren asmoa izandu omen da familien deiturak purgatzea, forma matea eta hornitzea, eta horretatik, Badasal deitzen dion lana atera du. Pixkan-pixkan, zuhaitz horiek hornitu nahi litzuzke, idazki zaharretatik atera daitekeen datuekin. Adibidez, XIX. mende bukaeran herriko jendeak zer bizimodu edo zer ofizio ote zuen aztertuta du, eta errepikatze moduko datua atera: jendeen erdiak lantatik bizi ziren, nekazari puruak ziren, eta beste erdiak ofizio askotakoak: kisuskileak, harginak, zurginak... Iruleak franko izandu omen dira herri honetan. Orduan, harri garria da 380 bat pertsonatik nola erdiak bes-



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN
Historia luzea gordetzen dute herriko etxeetako hormek.

te ofizio batetik bizi ziren.

Beste datu bat: eliza 1909an egina da. Zazpi anaiak egin omen zuten, denak harginak, denak saldistarrak. Oraindik haiek egindako lan asko ikusi omen daiteke bazterretan, nola zubiak, nola ermitak eta nola baselizak. Horrelako datuak ikasteko, ez dira aski elizako agiriak, udaletakoak ere aztertu behar omen dira, baita etxeetako artxi-boak ere. Jendea animatzen du Martinek herriko historia aztertzeri. Ez du libururik ateratzeko prententsiorik, baina bai nahi luke jendeak aprobeztatzea hark egin duena, horren gainean azterketak egiteko, aberasgarria delako.

Torresek galdetu zion ea noiz arte jo daitekeen atzera, eta hark erantzun ezagutzen duen liburu-rik zaharrena Labaingoa dela, 1559koa. Saldiasen, berriz, 1604koa omen da zaharrena. Li-

buru hark hasiera galduta izan behar du, baina datuak ikertu ditu, eta haie-tatik atera du liburu horren lehenbiziko orriak 1565 ingurukoak izanen zirela, alegia Labainan hasi eta berahalaxe hasi izanen zirela jaiotzak erregistratzen Saldiasen ere. Herriko etxeko agiriak, berriz, puskaz geroago hasiak dira, eta, horretaz, murriztagoak dira.

Zubietako Fermintan berreroari aditua dion gauza bat ere aipatzen du Martinek: gauza penagarria ikusi zuela Ferminek gazte denboran Zubietako plazan, kamioi bat bete paper erre zizutela Zubietako Udalekoek. Horrekinesan nahi du udaletan ere gauzak falta daitezkeela eta gauregun agiri zahar horiek noizbait hondatu ere egingen direla, eta hor dagoen informazioa gorde nahi baldin bada idazki horien kopiak egin behar harko direla.

PEDRO MITXEO ITSASGIZONA

Pedro Mitxeko itsasgizon ospetsua izan zen. Txurrukarekin itsasontzian ibilia, Espainiako hondarreko koloniak defendatu omen zituen Ameriketara, frantsesen kontra. Isabel II.aren senataria ere izandu zen. Informazio asko izan behar du agiritan, eta Martinek zati txiki bat du aztertuta.

ARRETXEKO EMAKUME BATEN KASUA

Arretxeko emakume baten kasua ere aipatzen du. Orain ehun bat urteko jendeek ez zuten ulertzen nola joan zen Argentinara ama bat, hemen 3 eta 6 urteko bi ume utzita, eta, paper zaharretan begiraturata, Martinek atera du alargun gelditu zela, eta saldiastar asko zen toki batera joan zela Buenos Aires ingurura, desesperatua.

JANMODUA

Garaian-garaian jateko zer zuten ere ikus daiteke. Esate batera, lehen, garia, garagarra eta horrelako pikorrak izaten ziren, baita gaztaina ere. Gaztaina asko. Urte erdia gaztaina jan ez bititzen omen ziren, urriroan hasi eta maiatz arte. Gero, Ameriketatik patata ekarri zuten, eta horrek bizia asko aberastu omen zuen. Geroxeago, berriz, artoa etorri zen, Ameriketatik hura ere, eta Saldiasen artoa ereiten noiztsu hasi ziren ere atera omen daiteke.

ERREPIDEAK

N-121-Aren funtzionamendua aztertuko du Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu-ko Sustapen Departamentuak lizitazioa atera berri du N-121-A errepidearen funtzionaltasunaren eta bide-segurtasunaren azterlan tekniko. Errepidearen funtzionamendua eta Iruñerriko eskualdeko autobien sarean sortzen den trafikoaren banaketa aztertuko balioko du. Lizitazioaren aurrekontua 100.000 eurokoa da (BEZa barne), eta 8 hilabeteen burutuko dela aurreikusi da. Gobernua errepideko ahultasunak identifikatzeko gauzatzen ari den analisiaren barnean egingen da azterlan, ondoren behar diren proiektuak gauzatzeko eta onesten diren proiektu horien oinarri obrak egiteko. Azterlan egiten den bitartean, lizitazio-fasean dela Belateko eta Almandozko tunelak bikoizteko alternatibak azterlanak. 81.500 euroko (BEZa barne) aurrekontua du eta lanak 5 hilabeteen egingen dira. Azterlanaren helburua Belateko eta Almandozko tunelak bitan banatzeko bideragarriak diren trazadura-aukerak zehaztea da. Aukeratzeko alternatibak oinarrituta finantzatzeko moduen inguruko azterlan ekonomikoa egingen da, baita proiektua idaztean beharrezkoa izanen den kanpaina geoteknikoaren proposamena eta balorazioa ere.

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 10EAN

Bazkide Egun bikaina ospatu zuten Labaingo Elkarteak

Azkarateko Mieltxok eta Dolareko Migel Angelek irabazi zuten lehia nagusia

Arantxa ITURRALDE

Giro ederrean ospatu zen Labaingo Elkar-

tearen Eguna. Ospakizun polita izan zen, eguraldiaren laguntzarekin, maiatzaren 10ean, Labaingo plazan. Eguerdian aizkora erakustaldi ikusgarri eta proba desberdinak jokatu ziren. Lehia nagusia biraka Azkarateko Mieltxo eta Dolareko Migel Angelek irabazi zuten lan bikain bat eginez.



Ernesto Ezpepeta *Bihurrik* esku bakarrekin 2 metro inguruko enborra ere moztu zuen.

Ondotik, bazkari ederra izandu zen Ittur-ondo elkarteak, bakailua eta txuletarekin.

Arratsaldean, berriaz, bazkideak mus txapelketa batekin akitu zuten eguna.

ARGAZKIAK:

ARANTXA ITURRALDE

Aizkolariek lana gogotik egin behar izan zuten Labaingo elkartearen bazkide egunean. Ondoko argazkian, Bihurri ageri da, esku bakarrekin bi metro inguruko enborra moztzen.



OIZ

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 25EAN

Joxe Joakin Ziganda omendudute Laxoaren Egunean

TTIPI-TTAPA

Azken urteetako ohi-turari eutsiz, Laxoa Eguna ospatu dute Oizen. Maiatzaren 25ean laxoaren erakusketa, argazki erakusketa, artisauak, musika eta pintxo dastaketa izan zen plazan. Jose Joakin Zigandari omenaldia eskaini zitzaion eta Baztan-Erreko 35. Laxoa txapelketaren zortzigarren jardun-

naldiari zegokion partida jokatu zuten Oizek eta Arraioz Ak. Ondotik bazkaria izanen dute.

JOSE JOAKIN ZIGANDA

Jose Joakin Ziganda Ibarregi laxoako historiakoetako bat da. 1942ko apirilaren 29an jaio zen Oizko Gartzinea etxean eta gaur egun Irunen bizi baldin bada ere, asteburuero etortzen da



ARGAZKIA: LAXOA ELKARTEA

Ziganda sakean, 1980. hamarkadan Elizondoko plazan.

sortetxera. Jokalari moduan, Baztan-Bidasoako Laxoa txapelketan azpitxapeldun izan zen 1961ean eta txapeldun 1962an. Berrikiago, Baztan-Erreko laxoa txapelketan txapeldun izan zen 1983, 1984, 1988 eta 1990ean eta azpitxapeldun 1981, 1982, 1986 eta 1992an.

Baztan-Erreko kopa torneoan ere txapeldun izan zen 1994an eta azpitxapeldun 1992an. Hondarribiako laxoa taldean entrenatzaile lanetan ere aritu da. Izan ere, odolean daramate laxoa Zigandatarrek, Joxe Joakinen aita, anaia eta semea ere laxoan aritu baitira.

Erremontelari profesionala ere izan zen eta bere ogibidea ere horrekin loturik egon da, erremonteko xistera egilea izan baita. 2000. urtean Gipuzkoako Bazkundeak saria eman zion bere artisau lanarengatik eta 2005ean Pilotarien Batzarra elkarteak omendu zuen Elizondon.

ARKUPEAK

BIDAIAK → MAIATZAREN 19TIK EKAINAREN 3RA

Benidormera urteroko bisita egin dute elkartekideek

Ekain erdialdean
112 bazkide
Zaragozara
joanen dira

Fernando ETXEBERRIA

Giro goxoan, hondar-tzan eguzkia hartuz... egonen dira Arkupeak Elkarteko 46 bazkide. Maiatzaren 19an joan ziren bertara eta 15 egunez egonen dira bertan. Bidaia honetatik itzuli eta maleta desegin ondotik, egun gutxiren buruan berriro ere kanpora irtenen dira batzuk, Zaragozara. 112 elkartekidek eman dute izena, hiriak dituen txokorik politenak ezagutzeko asmotan.

Donejakue bidean

Maiatzaren 10ean itzuli dira 22 ibiltariak Donejakue Bideko sei etapak osatu ondotik. Bitalk

detan banatuta egin dute bidea. Taldeetako batek Castrojerizen bukatu zuen ibilaldia eta besteak berriz Hontanasen. Eguraldi bikaina izan dute gainera, frexko goizetan eta epel eguerdian, bero handirik gabe. Ekainean beste talde batek sei etapa gehiago egingen dituzte eta irailean falta diren 10 etapak osatuko dituzte.

Boletin berria kalean

Arkupeak Elkartearen 10. boletina dagoeneko argitaratu dute. Bertan kontsultatu liteke datozen hilabeteetarako antolatutako ikastaro, bidaia eta hitzaldien gaineko informazioa. Aurten aitaxi-amatxien besta ez da orain arte bezala uztailaren 26an izanen, uztailaren 24ra aurreratu dute.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Donejakue Bideko sei etapa osatu dituen taldea.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Bertizen egun pasa bikaina

Maiatzaren 15ean, elkarteko 287 kide Bertizera joan ziren bisitan. 11:00etarako ziren bertan eta bost taldetan banatu ondotik, parkean barna ibili ziren. Artista desberdinen pinturak, grabatuak, egurrean egindako tailak eta burnian egindako lanak ikusteko aukera ere izan zuten. 14:00etan Urgain jatetxera joan ziren denak eta bertan Erramun Martikorena eta Jose Angelen musika eta kantuz aditzeko parada izan zuten. Kantuan, dantzan... bukaera borobila eman zioten egunari Arkupeak Elkartekoek.

ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 7 - 1
31770 LESAKA
T. 949 635 458
www.ttipi.net
info@ttipi.net



ttipi txartela
harpidetza boro
merkeagoa da

ttipi txartela
eginez gero
2 liburu opari



EZKURRA

GIZARTEA → 15 URTE DARAMATZA ITXITA

Eskola berritzeko tenorea

Teilatua eta aurrekaldea konpontzeko asmoa dago

Fernando ETXEBERRIA

Denbora luzez itxaroten egon eta dirulaguntzak jasotzeko gestio aunitz egin ondotik, eskolako teilatua eta aurrekaldea berritzeko asmoa aitzinera doa. Udalak plan zehatz bat adostu

du. Ekainaren 6a arteko epea izanen dute obran parte hartu nahi duten enpresek proposamenak aurkezteko. Baldintza bat ere bete beharko dute, berritze lanak irailaren 6a baino lehen bukatu beharko dituzte.

15 URTEZ ITXIA

Eskola 1999an itxi zuten, 89 urtez zabalik egon ondoren, ikasle nahikorik ez zegoelako.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Hauxe da egun eskolak duen itxura.

1914an eraiki zuten II. defonso Etxeberriaren lurretan eta honi, Aldapako lursail bat eman zioten ordainetan. Lehendabiziko obren kostua 21.626,70 pezetako izan zen. Eraikina- ren beheko solairuan mutikoentzako gela bat egin zuten eta lehenengo solairuan berriz, nes-

kena. Bigarren solairuan bi etxebizitza egin zituzten sukaldea, jantokia, despentsa eta irakasleentzako bi logela ere bertan jarri zituzten, komunik ez ordea.

Eraikinak ikasle eta irakasleen premiak asetzen ez zituenez, 1942an berritze lanak egin zituzten, irakasleen loge-

lak handitu eta komunak bertan jartzeko.

1988an, biltoki gisara erabiltzen zuten bajera moldatu eta bertan gimnasia egiteko gela bat moldatu zuten komun eta guzti.

15 urtez egoera txarrean egon ondotik, berriro erabiltzeko moduan utzi nahiko lukete.

LEITZA

OSPAKIZUNAK → KULTUR AROAREN BAITAN

Artisau azoka ekainaren 1ean eta Sagardo eguna 7an

55 artisaren postuek jantziko dute herriko plaza

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 15az geroztik kulturaren bueltan hamaika ekimen antolatu dituzte Leitzaan. Kultur aroaren baitan, hutsik egiten ez duten

hitzorduak datozen bi asteburuetan izanen dira.

Ekainaren 1ean eginen dute, artisau eta eskulangileen azoka. Aurtengoa 36. edizioa da eta 55 artisau jarriko dute postua herriko plaza mota guztietako eskulanez jantziz. Bitxiak, jantziak, osagarriak, mermelada, ezti... gustu guztiak asetzeko adi-



ARGAZKIA: ALKE

Goiz eta arratsalde, jende ugari ibili ohi da postuetan eskaintzen dena ikusiz.

na produktu jarriko dituzte aurtengoan ere ikus eta salgai. Goiz eta arratsalde egonen da zabalik azoka, bertan buelta bat eman nahi duten herritar eta bisitarien esperoan.

Kultur aroko beste hitzordu garrantzitsua,

Sagardo Eguna izan ohi da. Duela zazpi urte antolatu zuten lehenengoz eta urtetik urtera jende gehiago erakartzen duen ekitaldia da. Aurten ekainaren 7an izanen da. Ohikoa denez, iluntze partean, hogeitazazpi sagardogile baino gehia-

goren sagardoa dastatu eta pintxo ederrak jateko aukera izanen da txanpon gutxi batzuen truke. Eguraldi ona egiten badu, herriko plazan jarriko dituzte postuak eta euria egiten badu berriz, udaletxeko karrapean.

GOIZUETA

KIROLA → EKAINAREN 1EAN

Iskibi BTT zeharkaldia bosgarren aldiz egingen da

32 eta 50 kilometroko ibilbideak aukeran izan dituzte txirrindulariek

TTIPI-TTAPA

Iskibi kanpinak antolatzen duen BTT zeharkaldiaren bosgarren edizioa egingen da ekainaren 1ean, igandean. Izen ematea 09:00etan hasiko da eta irteera 10:00etan izango da. Parte hartzeko, Internet bidez eman daiteke izena www.kirolprobak.com webgunean, 12 euro ordainduta eta bestela, egunean bertan, 16 euro ordainduta.

Bizirkuitu egongo dira aukeran: luzeenak 50 kilometro izanen ditu, 1.300 metroko desnibel akumulatuarekin eta laburrenak 32 kilometro, 1.000 metroko desnibelarekin. Bietan ere mendiko pistak, xenda teknikoak, erreka ttikiak, jeitsiera dibertigarriak izanen dituzte txirrindulariek. Gainera, aurtun hobekuntza batzuk egin dizkiote ibilbideari, zati berriak gehituz. Zeharkaldia parte hartu behar dutenek larunbat gauean Iskibi kanpinean doan lo egiteko aukera ere izanen dute aurtengoan. Proba egunerako 12 euroko menua ere prestatu



ARGAZIAK: FELIX LOIARTE

Iruña Abesbatzak kontzertua eskaini zuen elizan

Iruña Abesbatzak kontzertua eskaini zuen maiatzaren 10ean elizan. Herriko Umore Ona abesbatzak ere parte hartu zuen emanaldian. Ondoren kantujira eta bazkaria izan zituzten Umore Ona elkarteak.

dute Iskibin, bertan bazkaldu nahi dutenentzat.

Kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa da. Parte-hartzaile guztiak aseguruak egongo dira, bi abituallamiento gune egongo dira eta bukaerari, luntxa, opari zozketa, durtzak eta bizikletak garbitzeko aukera ere izango da.

Zakurren txertoa

Zakurren identifikazio eta errabiaren kontrako txerto kanpainaren baitan, albataria ekainaren 17an izanen da Asinkon, 18:00etan. Lau hilabeteetik goitiko zakurrek bi urtetik egin behar dute.



Ba al zenekien

Eskualdeko pediatra euskalduna izan dadin eskatzeko 54 eskaera egin direla Goizuetan



Pertsonaia

Naroa ZUGARRAMURDI

Ezkabarteko literatur lehiaketan saritua

Nafarroako eskola askok bezalaxe, Andres Narbarte "Xalto" eskolako ikasleek ere parte hartu zuten Ezkabarteko 1. literatur lehiaketan. Maiatzaren 10ean Arren ospatu zen Euskararen aldeko egunean, 12-14 urte bitarteko bigarren saria lortu zuen Naroa *Familiaren indarra* izeneko narrazioarekin.



ARGAZIAK: FELIX LOIARTE

Herriko taldearen aurkezpena Goizutrail lasterketan

Antolaketan burubelarri aritzeaz gain, lasterketan ere parte hartu zuen herriko korrikalari talde berriak, propio egindako kamixeta eta guzti. Goizuetan mendi lasterketa bat egiteko gogoia zegoen eta egiteko gaitasuna eta mendia bada-goela ikusi da, beraz, datorren urtekoa oraindik ere arrakastatsuagoa izan dadin lanean jarraituko dute. Antolatzaileen partetik «mila esker lasterketan parte hartu duten guztiei, lasterketa egiteko bere laguntza eman diguten laguntzaile guztiei eta batez ere eskerrik asko eguna ongi atera zedin mendian eta herrian musutruk lanean aritu diren 85 herritar baino gehiagori».

GIZARTEA → ESKARIAK EKAINAREN 5 ARTE

Udalak ikasleei dirulaguntza ematea onartu du

Heziketa eta hezkuntza gastuak ordaintzekoa

Juana Mari SAIZAR

Ikasleei diru laguntza ematea erabaki du Udalak, heziketa eta hezkuntza gastuak ordaintzeko. Laguntza horiek jasotzeko baldintza batzuk bete beharko dituzte: 2013 urtean egindako ekintzak izan beharko dute. Egiaztatzen den gastuaren %50 ordainduko da, beti ere gehienez 100 euro ordainduz urte eta ikasleko. Eskatzaileak 16 urte baino gutxiago izan beharko ditu, Areson erroldatua egon, hez-

kuntzan egindako gastuak agiri bidez egiaztatuta eta kirolen kasuan jarduerak ezingo dute lehiakorrak izan. Interesa dutenek idazkaritzan eskaera egin beharko dute ekainaren 5a baino lehen.

Egur loteak

Etixerako egur loteak eskatzeko epea maiatzaren 19an ireki zen eta ekainaren 5a arte egongo da zabalik. Aurtengo ak pasa den urtekoak bezalaxe bost tona eta erdiko loteak izango dira, eta lotea eskuratzeko moduak ere iazko hirurak: Egur lotea etxeraino ekartzeko eskatzen duenak 170 euro ordaindu beharko



ARGAZKIAK: ENERITZ IRAOLA

Eskuz esku pesta giroan

Eskualdeko Gure Esku Dago eguna, bikaina izan zen! Eguraldi ederra izan genuen egun guztian zehar eta Aresoko plaza kolorez jantzi zen. Antolatzaileen partez mila esker laguntza guztiengatik. Norbaitek oraindik metroa ez badu erosi, mugi dadila! Ez da denbora asko geratzen eta!

ditu. Egur lotea atera eta pistaren kontra uztea aukeratzen duenak 70 euro eta lotea bota eta eramatearen ardura beregain hartzen duenak berriz 35 euro ordaindu beharko ditu. Loteen

zozketa ekainaren 17tik 20ra egingen da. Lotea eskuratzeko asmoa du-

tenek udal bulegoan egin beharko dute eskaera.



Ba al zenekien

Udararako kontratatutako herri langileak ekainaren 2an hasiko direla lanean.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

LEITZA

GIZARTEA → HIRU BILERA IREKI ANTOLATU DITUZTE

Udalak parte hartze prozesua jarri du abian

50.000 euro zertara bideratu erabakitzeko

JM BARRIOLA

Herritarren hitza entzun nahian, Leitzako udalak parte hartze prozesua antolatu du ekainean. Udal-aurrekontuaren zati bat, zehazki 50.000 euro, jarriko ditu herritarrek zertan erabili erabaki dezaten. Horretarako hiru bilera burutuko dira ekaineko hiru ostiraletan zehar. Deialdia irekia da, eta nahi duen herritar orok parte hartu dezake. Lehengo bilera, ekainaren 6an izanen da eta bertan herriaren diagnostika egingen da. Bigarren bi-

leran, ekainaren 13an, lehentasunak finkatu eta azkenekoan, ekainaren 20an, diru kopuru hori nora bideratu erabakiko da.

Herritarrek bileretara gonbidatu eta ezin duenak ere iritzia eman ahal izanen du Astiz eta Maimur liburu dendetan, Udaletxean eta Osasun Etxean jarrita dauden buzoietan. Beraz, Udalak leitzarrak animatu nahi ditu kultura, hezkuntza, ongizatea, zerbitzuak, kirola, euskara, aisialdia edo besteren gaineko proposamenak egitera.

Modu honetan udalak kudeaketa publikoa herritarrekin batera burutu nahi du, leitzarrak



UTZITAKO ARGAZKIAK

Mendialdea Mankomunitateak 650 kilo konpost banatu ditu

Leitza eskualdeko haur eta eskolen topaleku izan zen maiatzaren 10ean. Egun osoan zehar haur, guraso eta irakasleek primeran pasatzeko aukera izan zuten. Pesta bikoitza izan zen, konposta eguna ere orduan egin zutelako. Pestaren baitan, Mendialdea Mankomunitateak kalitate bikaineko 150 kilo konpost banatu zituen Leitzako 72 familiaren artean. Dagoeneko hondakin organikoen kopurua guztira 2,5 tonatan murriztu da, eta azken konpost banaketa honi aurretik egindakoak gehitu ezker, 650 kilo konpost lortu dira dagoeneko. 2013ko azaroan jarri ziren hiru konpost-guneetan lortu da kopuru hau eta bertan Leitzako herritarrek sortutako hondakin organikoen % 5a kudeatzen ari da. Parte-hartzaileek konpostajearen balorazio oso positiboa egin dute. Mendialdea Mankomunitateak jakinarazi du norbaitek konposta egiteko interesa edukiko balu, beharrezko informazio guztia 948510444 telefonora deituta lortuko duela.



diru publikoaren kudeaketaren parte eginaz eta parte-hartzearen bitartez herriko beharrak asetuko dituen eraikuntza kolektiboa sortuz.

Ba al zenekien

Kultur aroan parte hartzea handia izaten ari dela. 51 herritarrek parte hartu zuten Leitzako trikuharriak ezagutzeko ibilaldian. Ekainean ere ekitaldi ugari daude prest, animatu!



ARGAZKIA: JOSE LUIS UHARTE

Leitzako irakule taldearen saioa, Kirmen Uriberekin

Maiatzean egin du Leitzako irakurle taldeak ikasturte honetako azkeneko saioa. Saio horretarako Bilbao – New York – Bilbao eleberria irakurri zuten taldeko kide guztiek, eta liburuaren egilea bera, Kirmen Uribe ondarroarra, etorri zen saiora. Idazlearekin batera liburuaren inguruko hainbat alderdiz eta jakingarri hizketan aritu ziren. 2013ko abenduan abiatu zen irakurle taldea eta 15 bat lagun biltzen dira hilero. Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen euskarazko loteetatik liburu batzuk aukeratu ditu taldeak, hilabete bakoitzeko liburu bana, eta liburu hori irakurtzea eta ondoren denon artean horretaz hizketan aritzea izan da taldearen jardura. Heldu den ikasturtean jarraitzeko asmoa dute taldeko kideek, eta dagoeneko hitzartua dute Eider Rodríguez idazlearekin haren liburu baten inguruko saioa egitea, idazlea bertan dela.



ARGAZKIA: GIZARTE ZERBITZUAK

Emakumeen bilgune

Maiatzaren 16an eman zieten amaiera, Ixkibarren, Emakumeentzako Bionergetika taldearen aurreneko ikasturteari. Gizarte zerbitzuetako kideak «gustura» daude lortutako emaitzekin. Hasieran zertxobait kosta bazitzairen ere, zazpi hilabetez lanean aritu ondotik, emakumeentzat bilgune bihurtu da taldea. Euren gauzak konpartitu, beraien buruak gehio ezagutu eta hobekiago sentitzeko txokoa. Urrian berriro ere martxan jarriko da taldea. Interesaturik balego, gizarte zerbitzuekin harremanetan jar liteke.

BAZTAN

BESTAK → EKAINAREN 6TIK 9RA

Berroetako Mendekoste bestetarako egitarau zabala prestatu dute

Herritarren arteko jokuak eta bertso-triki poteoa izanen dituzte larunbatarekin

TTIPI-TTAPA

Berroetako Mendekoste bestak ospatuko dituzte ekainaren 6tik 9ra eta aurreko ere ekitaldi aski bereziekin hornitu dute egitaraua:

ORTZILERIA, EKAINAK 6 BEZPERA

- 20:00: suziriak beste hasiera emateko.
- 20:30: txopo goratzea eta herriko trikitilariak.
- 21:00: Mutildantzak. Txalapartariak.
- 21:30: Baztan-Zopak (Txartelak Maialen/Andoni).

- 00:00: dantzaldia AIERRIK taldearekin. (Gantorri autobus zerbitzua gau osoan.

LAUNBETA, EKAINAK 7 HAURREN EGUNE

- 11:30: BKZ puzgarriak egun osoan eta gazteendako rokodromoa.
- 14:00: Gazteen bazkaria Aizkoan.
- 16:00: Puzgarriak eta rokodromoa.
- 18:00: herritarren arteko joko ikusgarriak. Gazteak vs. zaharrak. Ondotik, Lepatanatuekin bertso-triki poteoa. Berroetako sagardo garaiaren hasiera. Txotx! batukadarekin. Gero, Santxotenarekin dantzaldia.
- 21:30: herriafaria (txartelak salgai Maialen/Andoni)). Kantu zaharrak



UTZITAKO ARGAZKIA

Asto karrerak 51. edizioa beteko du Berroetako Mendekoste bestetan.

- Santxotenarekin.
- 00:00: dantzaldia SANTXOTENAREkin. Ondotik, DJ Txemamix.

IGENDIA, EKAINAK 8 MENDEKOSTE EGUNE

- 12:00: Meza Nagusia Gaztelu Abesbatzarekin.
- 13:00: hameketakoa plazan.
- 13:30: herriko gazteen arteko pilota partida.
- 17:00: Maiatzeko erregina herrian barrena.
- 17:45: Baztango dantzari tikiak.
- 18:30: haurren herri kirolak.
- 19:00: SANTXOTENAREkin dantzaldia.

- 22:00: xinger jatea eta euskal kantu zaharrak.
- Egun osoan haurrendako puzgarriak.

ASTELEHENA, EKAINAK 9 ZIKIRO EGUNE

- 11:00: XLI. bizikleta itzulia.
- 12:00: mus txapelketa.
- 14:00: zikiro jatea SALABERRIAREkin.
- 18:30: XLI. asto karrera.
- 19:30: herritarren arteko futbol partida.
- 21:30: xinger jatea SALABERRIAREkin.
- 00:00: Gaixoa ni bestak akitzeko eta indarra duenarendako zapijokoa barneko arropetan.

BAZTANHARANA.COM

Webgune turistikoa erabat berritu dute

TTIPI-TTAPA

www.valledebazan.com
www.baztanharana.com
webgunea erabat berritu dute. Atari turistiko osatua izanen da, sareko erabiltzaileek, Baztan eta inguruko haranetako informazioa aurkitzeko. Web orri hau, 1999an sortu zen, proiektu pertsonal xume bat bezala etageroztik, garapen eta diseinu eboluzio etengabea izan du. 2012an, Baztan-Bidasoaldeko erreferentzia azko webguneetako bat bilakatu zen. Berrikuntzarik garrantzitsuenak Baztan zuzenean atala da. Bertan, bazarako puntu desberdinetan kokatutako zenbait webcam-ek momentuko argazkiak erakusten dituzte. Eskiz Informatikak kudeatzen duen atari honek urteko 50.000 bisita eta 4.500 jarraitzaile ditu Facebook-en.

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 629 659 583
ARIZKUN

IPINGI

%10 DESKONTUA
30etik gorako gastuan

BAZTAN-URDAZUBI

GIZARTEA → MAIATZAREN 20AN

Lankidetza eta adiskidantza hitzarmena sinatu dute bi Udalek

Berez Baztango lurrak izaki baina Urdazubitik hurbil dauden hiru auzoetako erabilera eta usadioak arautuko ditu

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Batzar Nagusiak eta Urdazubiko Udalak hamar urterako lankidetza eta adiskidantza harremanak zehazteko administrazio hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 20an. Bi herrietako alkate eta zinegotziak izan ziren ekitaldian.

Mendez mende eta usadioz eman da bi herrien arteko harremana, hala nola bazkalekuak, belaiak, iralekuak, itur-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bi herrietako udal ordezkariak, hitzarmena sinatzerakoan.

buruak, hilerriak, hondakin bilketa, osasun zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak edota suhiltzaile zerbitzuak aprobetxatu eta onura ateratzeari dagokionez, eta erabilera eta usadio hori aitortzen du hitzarmenak. Gai horiek arautzeko saiakerak ez zu-

ten orain arte idatzizko emaitzarik izan.

Katalinkonea, Hiru-mugakolepo, Gorramendiko errebidea, Otsondoko pasabidea, Lizarmeaka, Indarteko borda, Bi Zubiak alderditik Urdazubiko mugetaraingo Orabideko errekarri jarraikiz eta berriz

ere Katalinkonea lotzen duen eremuari dagokionez, Baztanek baimena ematen dio Urdazubiko udalari ura eramateko, baita Barretako erreka-ko ura hartzeko Urdazubiko auzokideen beharrik asetze aldera. Iraleku, belai, bazkaleku eta zuhaitzei dago-

kienez, Baztango Batzar Nagusiak baimena eman du Urdazubiko auzokideen ardi, behi, zaldi eta bertze azien-
dek erabiltzeko, ahuntzek izan ezik.

Berez Baztango lurrak izaki, baina Urdazubitik hurbil dauden hiru eremu eta auzoetako (Laputxaialdea eta Ekain) hondakinak Urdazubiko Udalak berak bildu eta kudeatuko ditu, orain arte bezala. Auzo horietako bizilagunek Urdazubiko eskola, osasun zerbitzuak edota kanposantua erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie, orain artean egin duten bezala. Senpereko suhiltzaileen bitartez auzokideei ematen dien laguntza eta suhiltzaile zerbitzua ere aitortzen du Urdazubiko Udalak.

Baztan-Venezuela

Venezuelatik Euskal Herrirat etorritako elkartasun brigada Baztanen egon zen maiatzaren 21ean. Mugimendu bolibariarreko hainbat ki-dez osatutako taldeak Amaiurko gaztelua bisitatu zuen eta Patxi Urrutiaren eskutik Amaiurko gertaeren garrantzi historiko eta politikoaren berri izan zuten. Venezolarrek Isaak Rekalde Amaiurko alkatearen agurra ere jaso zuten. Ondotik Elizondoko gaztetxean bazkari egin zuten eta Baztango alkatearen agurra jaso zuten. Bazkarirat bailarako mugimendu desberdinetan dabilzan herritar batzuk hurbildu ziren.



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Frantses-eskolak bukatu dira Leorlasen

Marie Denise Mackert ainhoarrak amaitutzat eman du 2013-2014 ikasturtea Leorlaseko eskolan. Aurten bi talde izan ditu Mackert irakasleak, hasiberriena eta maila ertaina dutenena. Urtero Urdazubiko jaiek eskolen amaiera iragartzen dute. Argazkian frantsese-ko eskoletan parte hartu duten Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko zenbait ikasle.



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Dena prest Urdazubiko bestak ospatzeko

Herriko gazteek —eta ez hain gazteek— bestetako txozna eta karpa paratu zuten San Salvador Plazan maiatzaren 17an. Asteazkeneko txupinazoaren eta lehenbiziko egunetako ospakizunen ondotik, ortziraletan Ugaranako bazkaria eta bertso-triki poteoa izanen da; larunbatean kontrabandisten lasterketa eta zikiro jatea eta igandean fronteniseko finalak.

ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → 25 LAGUN BILDU ZIREN BAZKARIAN

San Isidro eguna ospatu dute nekazariak

Alkerdiko kaperan meza eta Armuan bazkaria izan zuten

Margari eta Koro

Usaia den bezala ospatu dute aurten ere San Isidro eguna gure nekazariak: Alkerdiko kaperan meza egin zuten, eta lur-eremuak bedeinakatu zituen apezak. Ondotik ospakizun "zibila" etorri zen: kaperako atean berean aperitifa tiki bat hartu zuten, eta hortik Armua jatetxera joan ziren bertan bazkalteko. Bi herrietako nekazariak elkartu ziren, eta bazkarian 25 lagun ziren denetara. Nahiz eta gehienak jubilatua izan, aipatzekoa da gazte batzuk ere bazeudela.

Gaur egun San Isidro da egiten den ospakizun bakarra, baina gure xaharrak oraindik

oroitzen dire denbora batean, maiatzean, egiten ziren ospakizunetaz: hilaren 1ean hiru gurutzetara gaten ziren: lehenbiziko Ainarako gurutzera, handik Gandise-neko kaskorat, eta Bixkarrekoan finitzen zuten. Gero, maiatzaren 3an Martineko gurutzerat gaten ziren. Eta azkenik, San Isidro egunean, Mendibilekora (gaur egun hemen ez dago gurutzerik, zimizta batek hautsi zuelako).

Silvia Federiciren hitzaldia

Maiatzaren 10ean Silvia Federicik hitzaldi bat eskaini zuen museoan. Orain arte ez ginuen batere ezagutzen Silvia Federici, baina gizarte gaietako ospe handiko ikerlaria omen da. Eta egia erran, arras interesgarria izan zen aipatu zuen guztia.

Bere azkeneko liburuan ("Caliban y la bruja"), Europako sorgin ihi-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Nekazariak, San Isidroko bazkarian.

zia aztertu du, eta orain arte kontutan hartzen ez zen bertze ikuspuntu bat erakutsi du: sorginkeria aitzaki bat izan zela, eta gizarte sistema aldatzeko erabili zela.

Sorginen kontrako beldurra ez omen zen espontaneoki hasi, espreski sortua izan zela dio (gaur egungo "krisia" bezala?): lehenbiziko akusazioak, jauntxoek eta autoritateek bota omen zituzten, jende xumeen artean beldurra sortzeko, eta hortik aitzina bai, herritarak batzuk bertzeak akusatzen hasi ziren.

Eta bertze datu interesgarri bat ere eman zuen: Europako estatu guztiak elkarren aurka denbora guztian borrokan aritzen ziren garaian, sorginkeria afere-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Silvia Federici hitzaldian.

tan bat egiten zutela. Beraien artean informazioa partekatzen zuten

eta denak ados jartzen ziren (gaur egungo "krisia" bezala ere?).

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

CARLOS GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2C • ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 816

MENDIALDE
Jatetxea
T. 948 453 060 • AMAIUR
www.mendialdea.com

ARMUA JATEXEA
T. 948 590 131
Zugarramurdi errep. 3 km
LEIZORRI

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

POSADA OITZ
%10^{erko} DESKONTUA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN BIGARREN IGANDEAN

Herri Urrats jendetsua ospatu zen aintziran “31, mintza” lelopean

Nahiz eta begi
bistakoa den
gero eta jende
gutiago
etortzen dela

Herritarren ondoan, aurten ere kolore guzietako hautetsiak bildu ziren sostengua erakusteko Seaskari eta euskarazko irakaskuntzari hauean artean Senpereko auzapez berria Pierre Marie Nousbaum eskuindarra. Zonbat hitz euskaraz erran eta, auzapezak argitu zuen ikastolak laguntzen segituko duela herriko etxe berriak. Hautetsi guzien gogoan izan zen berriki Frantziako gobernu ordezkariak plazaratu duen zirkularra ikastolen egoitzei buruz. Txostenak dio erakunde publikoek ezin dietela eraikin publikorik utzi eskola pribatuei. Ikasgelak alokatzea merkatuaren prezioan edo lurra alokatzea prefabrikatuak emateko gainean dira lerro nagusiak. Seaska kexu da geroa iluna eta zalan-tzaz beteia ikusten baitu. Colette Capdevielle

Franck DOLOSOR

Ohiturari jarraikiz, maiatzaren bigarren igandean “31, mintza” mus joko ezagunaren lelopean ospatu zen hogioita hamekagarren Herri Urrats, Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko besta aintziran. Aurten ere sostengu zabala izan zuten euskaltzaleek nahiz eta begi bistakoa den gero eta jende gutiago etortzen dela bestarat. Zaila da erratea xuxen zonbat la gun biltzen den baina ikastoletakoek diote orotarar egun osoan 1.200 lagun ari direla lanean, aparkaleketan, ostatuetan, talo egiten edo iantziak saltzen.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Ekitaldi instituzionalean parte hartu zuten auzapez berriak eta mugaz bi aldeko politikariek. Kantaldi, kontzertu eta dantzaldiek jendetza erakarri zuten.

Baionaldeko diputatu sozialistak azpi marratu zuen zirkularrak ez duela neholako indar juridikorik. Telefono debaten balioarekin konparatu zuen eta jakinarazi hizkuntza gutituen gogoeta eguna egingen duela ekainaren 3an Parisen Asanblea Nazionalen legea prestatzen ari baita gai hortaz.

Iparraldeko ikastolek laguntza izan zuten he-goaldetik ere. Badira hiru urte Eusko Jaurlaritzak ez diola laguntza zuzenik ematen Seaskari baina bai zeharka. Izan ere urte guziz Gasteiz 400.000 euroko laguntza ematen dio

Euskararen Erakunde Publikoari euskara sustatzeko Iparraldean eta horren zati bat Seaskak eskuratzen duela azpi marratu zuten Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailburuak eta Patxi Baztarrika hizkuntza politikarako sailburu ordeak. Bere aldetik Gipuzkoako Foru Aldundiak 600.000 euro ematen dizkio Seaskari 3 urtez, hau da urte guziz 200.000 euro. Laguntza guziak ongi etorriak dira egoera larria baita euskararentzat Iparraldean. Euskara dakiten gehienak adinakoak dira eta hiltzen

ari dira, transmisioa hautsi da eta ikastolek ez dute aski hiztun berriak formatzen. Gaurko egunean, 2 eta 18 urte arteko 3.200 ikasle dabilta 31 ikastoletan, murgiltze ereduak eskaintzen duten eskola bakarretan. Aurten Herri Urratsen bilduren diruarekin lehen ikastegi profesionala eraikiko dute Miarrizten. Aipagarria da besta haundiaren biharamunean berean aintzirak betiko itxura berreskuratu zuela euskaltzaleek bazterrak aski ongi garbitu baizituazten usain bezala eta heldu den urtera arte erranez...

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarineatik
 2 km.tara

PLATER KONBINATUAK - OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ - PINTXOAK
ESPEZIALITAT AKARRAI ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanc@gmail.com

VENTA PEIO

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Sede (Amministrazione) 31789 VERBA	Shanghai 31712 LINDA	Shanghai 31789 VERBA	London 31789 VERBA
--	--------------------------------	--------------------------------	------------------------------

SARA

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Ikasturte bukaerako ospakizunetan sartuak daude ikastetxeak

Ekainaren 8an ikastolaren besta eta 14an eskola publikoaren ikusgarria

Joana GERENDIAIN

Urtero bezala mendekoste asteburuan Olhain ikastolak bere sagardotegia idekiko du. Ekainaren 8an, igandearrekin, eginen dute haien besta. Lehenik haurrek kantatuko dute, ondorengatik sagarno kupelak idekiko dituzte eta bu-

katzeko bazkaria zerbitzatua izanen da. Txartelak 22 eurotan dira. Arratsaldean jokoak izanen dira haurrentzat.

Eskola publikoaren besta

Eskola publikoan zinema eta bere historia landu dute maila ezberdinetan. Haien urteko ateraldiarentzat Saumejanera joan dira, han zinemari baliatzen duten teknika bat deskubritu dute: efektu bereziak. Bertze gauzak ere egin dituzte pinudi batean ibili dira bertzeak ber-



SARAKO ESKOLA PUBLIKOAK UTZITAKO ARGAZKIA

Eskola publikoko ikasleak Saumejanen.

tze. Ondorioz urteko proiektua bururatzeko, zinema goraiatuko duen ikusgarri bat emanen dute ekainaren 14an, larunbatekin, polikiroldegian. Ikusgarria arratsaldeko seieta hasiko da, ondorengatik zintzur bustitze bat pinudoei eskainia izanen da, denbora berean joko puzgarriak izanen dira haurrentzat. Bukatzeko deneri idekitako afari bat eginen da, bi menuekin bat haurren-

tzat eta bestea helduentzat.

Eskubaloia

Eskubaloiko 18 urtez azpiko eta senior ekipak beren txapelketarako finaletarako kalifikatu dira. Final erdietako itzultze matxak etxean jokatu dituzte bi ekipak, 18 urtez azpikoek irabazi dute Coarraze-Nayeko ekiparen kontra.

Seniorrek 27-22 irabazi dute Pau Noustyko ekiparen kontra. Fi-

nalak Hendaian jokatu dituzte, maiatzaren 23 n seniorrek eta maiatzaren 25ean 18 urtez azpikoek.

Zazpiak Bat ikasturte bukaera

Zazpiak Bat dantza elkarteak haurrek ere urte bukaerako ikusgarria ekainaren 13an emanen dute Lur Berri gelan, arratseko zazpitan. Ikusgarria ez da bakarrik gurasoei zuzendua, denek idekia baizik.



**Jexux Mari
BERASATEGI
MIKELPERIZENA**



Langile fina, lagun hobea
Macgiver bezain trebea
umoretsua; haundiskoa da
utzitako hutsunea.

IKASTOLAKO LAGUNAK



**Jexux Mari
BERASATEGI
MIKELPERIZENA**



Mila esker, Jexux Mari
zure lagunak izateko
pribilegioa emateagatik.
Beti egonen zara gure bihotzetan.

ZURE LAGUNAK



Jexux Mari BERASATEGI

Beran, 2014ko maiatzaren 16an

Hi hintzen
abila, trebea eta iaioa.

Hi hintzen
ausarta eta arduratsua.

Hi hintzen,
berriki, lankidea
eta gaur ... gaurtik haiz,
ADIXKIDEA.

3KIDEKO LANKIDE ETA LAGUNAK



EZKONTZAK

Alfredo Telletxea Ramos eta **Itziar Agirre Del Río**, Doneztebe eta Bera-koa, maiatzaren 19an.

Sergio Danboriena Etxenike eta **Leticia Errandonea Ordoki**, Irurita eta Arantzakoa, maiatzaren 17an.

Gonzalo Errandonea Ganboa eta **Oihane Etxart Santamaria**, Berakoa eta Lezokoa, Sunbillan maiatzaren 17an.



SORTZEAK

Xabier Larburu Elizalde, Etxalarkoa, maiatzaren 10ean.

Irai Onsalo Saizar, Aresokoa, maiatzaren 14an.

Ugaitz eta **Maitane Canal Artola**, Lesakakoa, maiatzaren 4an.

Maitane Canal Artola, Lesakakoa, maiatzaren 4an.

Unai Lopes Mendiboure, Sarakoa, maiatzaren 11n.

Ainara Elorz Ripa, Elizondokoa, maiatzaren 5ean.



HERIOTZAK

Ainhoa Lefevre, Donamariakoa, maiatzaren 3an, 42 urte.

Manuel Goñi Olaetxea, Elizondokoa, maiatzaren 12an, 81 urte.

Javier Zenoz Jimenez, Elizondokoa, maiatzaren 12an, 56 urte.

Manuel Iribarren Ibarrola, Urdazubikoa, maiatzaren 15ean, 91 urte.

Juan Jose Garbalena Goñi, Gartzaingoa, maiatzaren 15ean, 78 urte.

Jesus Mari Berasategi Mikelperizena, Berakoa, maiatzaren 16an, 47 urte.

Bernarda Aioroa Fagoaga, Aurtizkoa, maiatzaren 16an, 82 urte.

Maria Irigoien Azkona, Berakoa, maiatzaren 18an, 94 urte.

Bernardino Larralde Iparragirre Xamarko, Etxalarkoa, maiatzaren 19an, 71 urte.

Pierre Berhau, Sarakoa, maiatzaren 6an, 87 urte.



Jexux Mari BERASATEGI

Zauden lekuan zaudela ariko zara kantari edo txiste berri on bat asmatu eta kontari. Gauza zailak errazteko beti prest ta beti adi. Muxu ta besarkada bat etxeko; familiari; joanak direnez ondolik hemengo lagun ugari eman goraintziak denei gure partez Jexux Mari, Labiaga izanen da betirako zure kabi.

LAGUNAK



Xanti GAMIO SALABERRIA

Goizuetan, 2013ko ekainaren 5ean, 50 urte zituela

I. URTEMUGA

Urtebete da joan zinela ustekabe, bapatean geroztik zenbat hutsune dagon baserrira joatean anai, osaba, koinatu, lagun guztia zinen batean zure umore onez oroitzen zattugu gure artean.

ZURE FAMILIA



Felipe SUHAS LAURENCENA

Urdazubin, 2014ko apirilaren 19an, 67 urte zituela

Zure irria, zure ahotsa ez dugu sekula ahanzten umore osoz gure ondoan zinelako zu egoten zerura begiratu ondoren zangu bihotza xamurtzen oroitza penak behin eta berriz arima dute laztantzen.

ZURE EMAZTEA ETA FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten guzoi, Milesker.



Emilia AZPIROZ IRAZUSTA

Leitzan, 2014ko maiatzaren 6an hila

Eskerrik asko gure ondoan izan zareten guztiei.

FAMILIAK

MENDI LASTERKETAK → MAIATZAREN 18AN

128 korrikalari bildu zituen Goizutrail probak bere lehen edizioan

Ismail Razga santurtziarra eta Ainhoa Lendinez elgoibartarra izan ziren irabazleak

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 17an jo katu zen Goizuetako lehenengo Goizutrail mendiko lasterketa. Korrika egiteko eguraldi bikaina izan zuten kirolariek, nahiz eta mendian laino pixka bat zegoen. Laisterketan 128 pertsonak parte hartu zuten. Ismail Razga santurtziarra eta Ainhoa Lendinez elgoibartarra izan ziren irabazleak.

Gizonezkoetan, Is-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Gizasemeen, emakumeen eta herritarren podiuma.

mail Razga Santurtziarra izan zen lehenbizikoa. Ia 22 kilometroko ibilbide gorabeheratsua egiteko, ordu bat, 47 minutu eta 21 segundo behar izan zituen. Unai Santamaria hernaniarra bigarren izan zen (1:51:57) eta hirugarren

Azpeitiako Imanol Larrañaga izan zen (1:54:08).

Emakumezkoen artean, Ainhoa Lendinez elgoibartarra izan zen irabazlea 2 ordu, 18 minutu eta 8 segundoko denborarekin, bigarren Uxune Tena urnietarra (2:20:44) eta hirugarren

Irantzu Ibarrondo (2:47:05).

Herritarren artean onena Martin Etxeberria izan zen eta herriko lehenengoa izateaz gain sailkapen orokorreko hamabigarren lekuan iritsi zen (1:59:37). Benetan bikain aritu zen

Goizuetako gaztea. Aipatzekoa da herriko 14 korrikalarik parte hartu dutela lasterketan.

Lasterketa bukatu ondoren denek izan zuten dutxatzeko aukera eta ondoren sari bana-keta eta zozketak egin ziren bitartean hamaketakoa ere eskainizitzaia.

Eguna oso ongi joan zen, eta antolatzaileen helburuak bete ziren. Goizuetan mendiko lasterketa bat egiteko gogoia zegoen eta datorren urtekoa oraindik ere arrakastatsuagoa izan dadin lanean jarraituko dute, aurtengo edizioa aztertu, eta hobetu daitezkeen gauzak hobetzeko lanean jardungo dute Umore Ona elkar-tekoek.

SOKATIRA → NAFARROAKO LAUKO TXAPELKETA

Amaiurrek lortu du lehen txapela

Azken saioa Lesakan jokatu da larunbatean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako lauko sokatira txapelketan, gizonezkoen 320 kiloko eta emakumezkoen 265 kiloko kategorietan Amaur A eta Basaburua-Imotz izan dira txapelak.

Gizonezkoen txapel-

keta aski berdindua izan da. Jautsaratsen jokatuak lehen jardunaldian Beti Gazte B nagusitu zen eta Amaur A bigarren izan zen. Etxarri-Aranatzen, aldiz, bi talde hauek berdindu egin zuten beraien arteko tiraldietan eta bertze gainerako guztiak irabazi. Lehen bi sailkatuen arteko finalean Amaur nagusitu zitzaion Lesakako taldeari kitarkoan eta txapela lortu zuen. Talde txapeldu-



ARGAZKIA: XAGU-LESAKA

Amaur A taldekoak, 320 kiloko lehen jardunaldian.

nean, Lander Landiribar, Iñaki Urrutia eta Joseba eta Julen Jauregi aritu ziren lehen jardunaldian eta bigarrenen, Juanma Irigoien sartu zen Joseba Jauregi-

ren orde. Amaur B hirugarren izan zen.

Orain gizasemeen 300 kiloko eta emakumezkoen 245 kiloko jokoa da. Emakumezkoetan partaide berak izan

nen dira eta gizasemeen bat gehiago, Kas-kailueta. Lehenbiziko jardunaldia maiatzaren 24an izan dute Berriozarren eta bigarrena maiatzaren 31n Lesakan.

MENDI LASTERKETAK → MAIATZAREN 31N

Euskal Herria Mendi Erronkaren bigarren edizioa ere Leitzan

65 kilometroko luzera duen proban, 700 lasterkarik eman dute izena

TTIPI-TTAPA

Euskal Herria Mendi Erronka mendi lasterketa maiatzaren 31n izanen da. Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldeak antolatu du aurten goa ere, eta leitzarren laguntza izanen dute. 65 kilometroko luzeran, Leitzan izanen du abiapuntu eta helmuga, bidean Ara-

larko mendizerra zeharkatuz. 7.000 metroko gainbehera duen proba da. 07:00etan abiatuko dira lasterkariak, eta 13:00etarako aurreikusitako hasiko direla iristen lehenengoak helmugara. Tartean, Guratz, Gorriti, Arribe, Gaintza, Hirumugarrieta (1.431 metro), Albi, Artxueta, Lekunberri, Etxarri, Ireber eta Kornietagiaro behar dituzte.

Parte hartzaile kopuruak ere gorantz egin du aurten, 700 dortsaleko mugajarri eta guztiak bete baitira. Iazko lehen edizioa 500 bat lasterkarik



ARTXI BOKO ARGAZKIA

Angel Arrietak irabazi zuen iaz Euskal Herria mendi erronkaren lehen edizioa.

hasi zuten eta horietatik 366k lortu zuten bukatzea, eguraldiak ere baxterez ez baitzuen lagundu. Gizonezkoen artean irabazlea Angel Arrieta Lujanbio Uharte-Arakilgo Aralar-Mendi klubeko izan zen (6:45:51). Emakumezkoen artean lehena, Ibarrako Leire Agirrezabala Ezkurdia izan zen (8:24:08). Iazko irabazleek aurtengoan ere erronkari erantzun diete eta haiekin batera nazioartean ezagunak di-

ren lasterkariak izanen dira, besteak beste Monica Grajera kataluniarra eta Marco Olmo italiarra.

Proba bakarrean txapelketa ezberdinak izango dira, banakakoa, KM bertikala edota taldekakoa adibidez. Taldekako kasuan, partaideen artean gutxienez emakume batek egon behar du.

Festa ostiralean hasiko da, 17:00etatik aurrera, dortsal banaketa eta korrikalarien azoka

eginen dituzte. Marco Olmoren hitzaldia ere izanen da 20:00etan Leitzako zineman. Maiatzaren 31n, probaren egunean, egun osoan izango dira ekitaldiak. Haurrentzat jokoak egongo dira, txosna txiki bat ere jarriko dute jan-edana egiteko, eta materiala erosteko gunea ere izango da. Iritsi ahala ongi irabazitako bazkaria izanen dute esperoan korrikalariak Leitzako plaza.

KENPO KAI → APIRILAREN 26AN LINARESEN (JAEN)

Zaira Latasa elizondarra txapeldun suertatu da Espainiako txapelketan

Beñat Yanci igantziarra eta Iraia Gillenea beratarra ere aritu ziren

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko hiru ordezkari joan ziren apirilaren 26an Linaresean (Jaen) jokatu zen Espainiako kenpo kai txapelketan parte hartzera eta

emaitza bikainekin bueltatu ziren.

Zaira Latasak, gerriko marroi eta beltzei zuzendutako emakumezkoen txapelketa nagusian hartu zuen parte. Defentsa pertsonaleko tekniketan (Goshin) eta semikontaktu borroka puntuan azpitxapeldun izan zen, baina txapelketa osoan egindako lan bikainari ginda paratuz semikontakto borro-

ka jarraian Espainiako txapelketa irabaziz.

Kirolari gazteagoak ere joan ziren Linaresean. Infantil mailan, Beñat Yanci igantziarra azpitxapeldun izan zen semikontaktu borroka puntuan modalitatean Bi sari-dunekin batera, Iraia Gillenea beratarra ere parte hartu zuen infantil mailan eta ez zuen dominarik lortzerik izan. Halere, defentsa pertsonalean



UTZITAKO ARGAZKIA

Zaira Latasa, Iraia Gillenea eta Beñat Yanci.

eta formetan lan ona egin zuten.

Kirolariek gain, txapelketan izan ziren Koro Iriarte beratarra, Nafarroako selekzioa teknikari moduan eta Modesto Ordoki eta Juan Mari

Vidal epaileak. Hain zuzen, arte martzial hau eskualdean sartu zuen Juan Mari Vidal-i 2013ko Urteko Maisuaren saria eman zioten txapelketaren ondoren egin zen gailan.

maiatzak 29 - ekainak 12

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak



ETXALAR | 2014.06.01

Gasna lehiaketa Etxalarko Gasna Feria Egunean

Ekitaldi nagusia Baztan-Malerreka-Bortziritako Gasna lehiaketa izanen da, baina horrez gain, eskulangileen azoka, trikitilari eta dantzarien saioa... izanen dira.

Antzerkia



LEITZA | 2014.06.07

Seigarren aldiz Sagardo Eguna ospatuko dute ekainaren 7an

Kultur Aroaren baitan, aurten seigarren aldiz Sagardo Eguna izanen da Leitza. Euskal Herriko hainbat bazterretako sagardoak dartzeko aukera izanen da.

Musika



SARA | 2014.05.31

Usopop jaialdiaren topaleku Lizaletako lepoa

Festibalaren bosgarren edizioan hainbat taldek kontzertua eskainiko dute: Anari eta Aguxtin Alkhat, Sebastien Schuller, Mobydick Band eta Kid Wise.

LESAKA

Beti Gazte Elkartearen Eguna

Ekainaren 7an.

NARBARTE

Narbarteko Eguna

Ekainaren 7an.

SARA

Ikastolako besta

Ekainaren 8an.

Eskolaren besta

Ekainaren 14an.

Xareta Eguna

Ekainaren 15ean.

BERA

Haurrentzako besta**Enaitza Gara Guraso****Taldeak antolatuta**

Ekainaren 7an.

Dantzak

SARA

Zazpiak Bat Dantza**Taldeko haurren****dantza saioa**

Ekainaren 13an frontoian 19:00etan.

Bestak

IRURITA

Herriko bestak**Maiatzaren 28tik****ekainaren 1era.**

URDAZUBI

Herriko bestak**Maiatzaren 28tik****ekainaren 1era.**

BERROETA

Herriko bestak

Ekainaren 6tik 9ra.

Zinema

LEITZA

Mendia, kirola eta**abentura zinemaldia**

Ekainaren 4 eta 5ean

Peritzan.

DONEZTEBE

Mendiko diapositibak

Ekainaren 6an Atzera

Erakusketak

ELIZONDO

Isilpean eta iluntasunean ezkutatuta ateratako argazkiak

Ekainera arte Pello San Millanen argazkiak Txokoto ostatuan.

Solasaldiak

LEITZA

Kultur Aroaren barne hitzaldi gehiago

Maiatzaren 29an
Euskararen Mundua jendea osatzen
proiektzio solasaldia Atekabeltzen (20:00).

Maiatzaren 30ean
Marco Olmo ultraileko mitoa solasaldia zine-
man 20:00etan.

Antzerkiak

LEITZA

'Aresoko Harrie'

Ekainaren 14an
20:00etan zineman.

Kontzertuak

SARA

Usopop jaialdia Lizarietako lepoan

Maiatzaren 31n
15:30etik goiti Anari eta Aguxtin Alkhat, Sebastien Schuller, Mobydick Band eta

Kid Wise jaialdiaren bosgarren edizioan.

BERA

Guztiok Guraso Taldearen aldeko ongintza kontzertua

Maiatzaren 31n
17:45etik aitzinera Altzateko Plazan.
Eguraldi txarrarekin Altzateko frontoian.

LEITZA

Gibelurdinek taldearen kontzertua

Ekainaren 6an
23:30ean Peritzan.

LESAKA

Lesakako soinuariaren kontzertua

Ekainaren 6an
19:30ean.

Ospakizunak

DONEZTEBE

Malerrekako Eguna

Maiatzaren 31n egun osoko besta. Xehetasunak 18. orrialdean.

Errekaren Eguna

Ekainaren 6 eta 7an ekitaldi ugari bi egunetan. Xehetasunak 19. orrialdean.

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Malerrekako Eguna Donezteben

Malerreka eta Bertizara-nako herriak maiatzaren 31n Donezteben eginen dute hitzordua, Malerrekako Eguna ospatzeko. Ekitaldi aunitz prestatu dituzte: harrera ekitaldia, artisauak, talogileak, dantzariak, abesbatzaren saioa, buruhaundiak, betiko ofizioen erakusketa, bazkaria, muxikoak, mus txapelketako finala, aizkora apustua, laxoa partida, joaldunak, dantzaldia...



begira, 20:00etan
Zineman.

BERA

'Musikaren lorategian'

Ekainaren 1ean Enaitzen alde dokumentala Kultur Etxean (17:00).

Azoka

LESAKA

Bidasoa aldeko arte eta artisautzaren azoka

Maiatzaren 31n.

LEITZA

XXXVI. Eskulangintza

Azoka

Ekainaren 1ean
plazan.

Lehiaketak

BERA

Bestetako egitarauaren azalerako lehiaketa

Ekainaren 27ra arte aurkez daitezke lanak Herriko Etxean.

LESAKA

'Elias Garralda'

II. Margotze azkarreko lehiaketa

Ekainaren 8an. Lanak 13:30etik 14:00etara aurkez daitezke Beti Gazteren egoitzan.

Haur margoketaren eguna

Ekainaren 8an. Lehen Hezkuntzako haurrentzako lehiaketa 11:00-etatik 13:00etara.

Mendi irteerak

BAZTAN

Mendigoizaleen irteerak

Ekainaren 1ean Ata - rabiara 07:30ean abiatuta.

Ekainaren 8an Belate-tik Leitzara 06:30ean abiatuta.

LESAKA

Lesakako Mendi Itzulia

Ekainaren 15ean.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Kanguruak zootik ihesi

IÑAKI ZUBELDIA

Ibaizabal, 2014

> **H**erriminak jota hiru kanguruk Frankfurteko zootik ihes egin dute basurdearen eta azeriaren laguntzarekin. Ahalegin horretan basurdeari letagin bat puskatu zaio. Inguruko herri ttiki bateko umeen lagun egingen dira animaliak eta ia egunero jolas egingen dute hauekin. Umeek nahiko lan izanen dute lortu nahi dituzten bi helburuak betetzen: kanguruak Australiaraino bidaltzea eta basurdeari letagina konpontzea; izan ere, zooko sare metalikoa hausteko ahaleginean, letagina erdi-erditik puskatu baitzaio azken honi. 10 urtetik aitzinerako neska-mutikoentzat da Iñaki Zubeldiaren abendura-liburu hau eta hainbat balore sustatu nahi ditu: animaliekiko errespetua, naturarekiko maitasuna, mundua ezagutzeko jakin-mina, erantzukizuna, adiskidetasuna... Alai Zubimendiren irudiek ilustratzen dute 72 orrialdeko liburua.

Musika



Mugitu

TXIMELETA PLAZA

2014

Kalean da Tximeleta Plaza taldearen lehendabiziko diskoa: *Mugitu*. Lehendik grabatutako lau abestiz gain, bertze sei berri bildu dituzte. 2014ko otsaila eta martxoan DrumGrooveStudioan, Josu Erbitiren produkzio eta gidaritzapean grabatu eta nahastua eta Elkar Estudioan Victor Sanchezek masterizatua izan da. Hamar kantuz osaturiko diskoa da, beraiek konposatutako musika eta bertsolari ezagunek eginiko letrez lagundurik: Arkaitz Estiballes, Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi, Iker Zubeldia, Xabier Silveira, Julio Soto, Manu Gomez, Joseba Beltza eta Eneko Lazkoz. Hortaz aparte, diskoa grabatzeko orduan zenbait lagunengandik kolaborazioa ere izan dute. Taldekideen artean dago Maider Ansa aranoarra, abeslaria. Gorka Otamendi baterajolea da; Fabian Tapiak baxua, kontrabajua, txirula eta gaita jotzen ditu; Rafa Moyak gitarra akustiko eta elektrikoak jotzen ditu; Jose Olaizolak teklatura jotzen du eta Mikel Mundiñano trikitilaria eta abeslaria da.

Internet



Mendialdea
Mankomunitatearen
ataria

WWW.MENDIALDEA.NET

Arano, Areso, Goizueta, Leitza eta Lekunberriko hondakinen kudeaketaz arduratzen den Mendialdea Mankomunitateak webgune berria jarri du martxan. Eskualdeko herri guztietako hondakinen kudeaketari buruzko informazioa jarri dute eskuragarri. Besteak beste, konposta gunea, birziklatzeko gunea, bilketa sistema ezberdinak eta herritarrei sortzen zaizkien ohiko zalantzak argitzen dituen txokoa aurki daitezke www.mendialdea.net web orrialdean. Horretaz gain, Mendialdean antolatutako ekimen eta jardueren berri ere jasoko du atari berriak *Albiste* eta *Ikusi eta ikasi* atalean. Gainera, Mendialdeako Mankomunitateak aurrerantzean sare sozialetan ere oihartzuna izanen duela adierazi dute. Atari berria euskarara eta gaztelaniarako bertsioan dago.

Nire aukera



Leire SARRATEA
Almandozko gaztea

«Eguneko besta aberatsagoa da, jende gehiagok parte hartzen du»

Egutegia hartu eta ekainera begira jarria dago 24 urteko almandoztarra, «agrobioteknologiako masterra orduan akitzea espero dut eta Almandozko bestak ere korpusetan dira». Barru barrutik bizi ditu aurten goak «urtero bi pertsona aukeratzen dira bestak antolatzeke, ania eta biok ari gara». Egitarautik «Korpus eguneko Aurora» azpimarratu digu «gure aitatxi eta amaxien garaian egiten hasi eta egun ere arrakasta du». Tortila lehiaketa ere aipatu digu «herritarren parte hartzea indartu eta jendea plazara hurbiltzeko» aitzakia delako. Eguneko besta du maite «abertsagoa» delako, «adin guztietako jendeak parte hartzeko aukera duelako». Azken xehetasunak lotzen ari dira guztia primeran iriteteke. Atzerako zenbaketa egin bitartean, eguraldi ona egiten badu ez da harrizkoa bera eta bere bikote edo lagunekin mendian topo egitea. Igan deetan berriz, erraz topatuko duzue «igandeako planik onena anai-arreba eta gurasoekin eguna Almandozen pasatzea da».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/100.000 €. 948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- Aukera: 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ARRAIOZ. Baserria salgai edo errentan emateko. 609 973306.

LESAKA. Frain auzoan baserria salgai, lur eremuarekin. 667 213232 / 616 729549.

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisu berri eta polita salgai, urbanizazio pribatuan (igerilekua, padeleko zelaia, frontoia eta lorategi komunitarioak). Azken solairua. 52 m². Egongela-sukaldea, komuna eta logela bat. Bigarren logela tiki bat egiteko aukera. Trastelekua. Garajea. Igogailua. Berogailua. Mobleztatua. Fotocasan argazkiak. 83.000 euro. 661 898970.

BERA. Etxebizitza atxikia salgai. 200 m². 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, ga-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

rajea (27m²) eta lorategia (75m²). 3 autorentzako aparkalekua. 350.000 euro (Prezio negoziagarria). 636 880115 (19:00etatik aitzinera).

ERATSUN. Hiru borda salgai, lur eremuarekin. 943 217817.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

BERA. Pisua errentan emateko, Illekueta auzoan Hegoalde karrikan. 1. solairua, 3 logela, sukalde, komuna, eta egongela arrunt argitsua, Leiho berriak, mobleztatua, isolatua, garaje handia. 500 euro. 637 940994.

ELIZONDO. Paularena karrikan, pisua errentan emateko. Dena mobleztatua. 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde eta trastelekua. 1. go solairuan. Igogailuarekin. 948 599171.

LESAKA. Apartamentua errentan emateko irailaren 15etik aurrera astelehenerik ortziralera. 2 logela bakoitza bere komunarekin, sukalde eta egongela. Telebista. Kotxea behar da. Herritik 2 KM. 678 855056.

IRUÑEA. Baztandar batek ikasleendako pisua errentan emateko UPNAtik 5 minututara. 620 209663.

BERA. Kanttoberri karrikan pisua errentan emateko. Mobleztatua. 649 069745 (Deitu 17:00etatik aitzinera).

ITUREN. Etxea errentan emateko. 2 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldearekin. Toki lasaia. 680 456866.

LESAKA. Ote kalean pisua errentan emateko. Berritu berria eta mobleztatua. Ganbara ere bada. 661 262531.

BERA. Legia karrikan

90m²ko pisua errentan emateko. 2 logela, egongela, sukalde, 2 komun, igogailua, berogailua eta balkoi zabala. Eguzkitua. 659 152175 / 699 387463.

BERA. Altxateko Plazan pisua errentan emateko. Igogailuarekin, 3 logela, egongela, sukalde zabala eta berogailua. Guztiz ekipatua. 665 716126 / 685 727560.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. Eltxetako plazan lur azpiko garajea salgai. 646 774117.

DONEZTEBE. Frontoi zaharrean 27 m²ko garajea salgai. Prezio onean. 686 182901.

LANA

eskariak

ELIZONDO. Gazte eus-

kalduna lan bila. Eskulanean, txofergoan, mendiko eta baserriko lanetan aritua. Edozein lan egiteko prest. 627 290241.

Neska euskaldun gaztea, esperientziaduna eta tituluarekin, ezintasun edo zailtasunen bat duten pertsonekin lan egiteko prest dago. Kotxe propioarekin. 620 641067.

Neska gazte batek 4 edo 6 orduz lan egingen luke. Edozer gauzaten. Dendan esperientziarekin. 687 222320.

ELIZONDO. Emakume bat edozein lanetan ariko litzateke: etxeko garbiketarik egiten, haur edo adineko pertsonak zaintzen, ostatuko lanetan... 689 449933.

ELIZONDO. Emakume euskalduna lanerako prest: haurrak zaintzeko, etxeko-lanetarako, ostalaritzan (sukalde eta garbiketarik), obradoreak... 688 621570.

ELIZONDO. Neska gazte lan bila: garbiketarik, haurrak zaintzeko, ostalaritzarako... 632 967704.

ESKUALDEA. Interna bezala, esperientziaduna eta erreferentziekin. Externa bezala, orduka lan egiteko prest: helduak, haurrak, garbiketarik... 653 645701 / 618 492937.

BERA. Emakume euskalduna garbiketarik lan egiteko prest. 661 068368.

BASERRIADATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(maiatzaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 51 € (=)

Zerri gizena
1,365 € kiloak. (=)

Zerramak:
0,740 € Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,11
2.koa 3,96
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,44
1.koa 4,15
2.koa 4,01

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00

idixkoak 160,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 6,20/6,80

8-10 kilokoak: 4,80/5,50

SANTESTEBAN TAILERRAK



ETA GAINERA:
KANGOO ITXA DCI 70 CV - 2010 urtekoa
CLIO II DCI 70 CV - 2010 urtekoa
SCENIC IX4 SALOMON 1.9 TD 100 CV
MITSHUBISHI MONTERO SPORT 2.5 TD
2000 urtekoa - 52.500 km

KILOMETRO 0 prezio ezin hobekak!!!

Doneztebeko **25 urteko neska euskaldun** bat dendetan dependienta, adineko pertsonak zaintzen, etxeak garbitzen, zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo administrari bezala lanean ari zeko prest Doneztebe-Baztan aldean. Kotxe propioarekin. **649 901395**.

LANA eskaintzak

BERA. Ile-apaindegi batean esperientzia duen pertsona bat behar da. **638 906573**.

BERA. Frantses pixka bat dakien pertsona behar da Larungo bentabatean bertako langileei bazkaria prestatzeko eta ostatuan laguntzeko. Sukaldean esperientzia duena. **607 566022**.

ZUGARRAMURDI. As-teburu eta udan ostatuan aritzeko langilea behar da. **948 599082**.

ZERBITZUAK denetarik

ERRATZU. Ekainean ingeleseko ikastaro trinkoa. Lehen maila. Haurrak eta helduak (12 urte-tik goiti). Aurretiko ezagu-tzarik ez da behar. **659 948926 / dianainiesta@hotmail.com**

MOTORRAK saldu

Chevrolet aveo LT 1.4 16 v autoa salgai, 5 urtekoa, klima, kontrolak bolantean, beti garajea

egona, gidari bakarra, IAT-ITV indarrean, 63.000 kilometro. Oso egoera onean. 4.900 euro negoziagarriak. **680 707807**.



Enzintadora Supa Pack karroduna salgai. Traktore ertainendako. Gutti erabilia. **606 586603**.

LEITZA. Autokarabana (McLouis Glen 430) salgai. 6 plazakoa. 24.500 euro. **669 828791** (Whatsapp badu).



2006ko **Renault Kangoo** 1.5DCI salgai. Egoera onean eta ongi zaindua. Gorpilak, olio eta filtroak berriki aldatuak. IAT-ITV 2015eko apirila arte. 162.500 KM. 3.450 euro. **696 763842**.



ANIMALIAK oparitzeko

ERRATZU. Kataku-meak oparitzeko. Ama

JAKIN BEHARREKOAK

Zaindu zaitez!

Bertze zonaldeetan bezala, Malerre-kako Osasun Zentroan norberak bere burua zaintzea garrantzizkoa dela erakusteko kanpaina hasi dugu. Honen helburua, baldintza onez betetako bizitza luzea izatea da.

Osasun arloan lan egiten dugunok behin eta berri-errezetak, aholkuak eta abar... eman ditzakegu, baina alferrik izan daitezke norbere osasunaren arduraduna dela ohartzen ez bada. Hau dena kontutan hartuz, hona hemen idatziko ditugun hamabi osasun aholkuei buruzko artikuluen lehendabizikoa, ahal den eta bizitza luze eta sanoa goa izan dezagun:

ZAINDU ZAITEZ. NOLA? OROKORREAN:

- Denetarik jan eta janari garbiak.
- Mugi zaitez, ariketa fisikoak egin erre-gulariki.
- Zure pisua orekatu.
- Erretzailea bazara, tabakoarekin du-zun lotura hautsi.
- Alkohola neurrian edan.

ehiztari ona. Eramateko prest. **660 928563**.

Aurkitutako **zakur bat** zainduko duen norbaiten bila ari gara. **610 466198**.



ANIMALIAK saldu

ORONÓZ-MUGAIRI. 2 hilabeteko txakurkume-akeramateko prest. Beltzak. Ama Schnauzer (gigante) arrazakoa pedigriarekin. Desparasita-tuak eta txertatuak. 100 euro. **699 926813**.



Osasun kontuak

Edure ARRAZUBI • Malerre-kako Osasun Zentroko gizarte langilea

- Buruko osasuna zaindu.
- Zure onurarako izanen den bizitza eraiki.
- Ez utzi lekurik estresari.

- Maitatu eta utzi zu maitatzen.
- Zeure burua babestu: lanean, etxean, aisialdian, sexu harremanetan, eguzkitan...

- Hobe da prebenitzea: txertoak jarri behar badira, osasun errebisioak egin; zaindu oroimena, ikusmena eta entzumena.
- Zaindu ingurugiroa.

Eskura dituzun zerbitzuak erabili, osasun hobea izateko.

Zaindu zure gorputza eta zure burua, baita zure emozioak eta zure bizitza ere. Norberak bere burua zainduz, gizarte osasuntsuagoa lortuko dugu.

Nola lortu aipatu ditugun gaiak? Noiz-zean behin, TTPI-TTAPA aldizkarian bat banaka jorratuko dugu aipatu dugun gai bakoitza; hala ere, honi buruz kezka izanez gero, zure mediku, erizain edo ta gizarte langileari aipatu.

Bi ahari muturgorri salgai, bat adarrekin, ber-tzea gabe. **606 019337**.

DENETARIK salerosketak

IRUN. Titularraren herio-tzagatik taxi lizentzia sal-gai. Saltzeko presa. **629 438753**.

IRUN. Taxi lizentzia sal-gai, jubilazioa dela-eta. **630 123959**.


ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera erama-



nen da. **676 242520**.

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. **659 867287 / 699 461394**.

Aulkia eta mezedora salgai. **660 870536**.



Idazmahai salgai. **660 870536**.



urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



BEÑAT GOÑI
ERRANDONEAK urte bat beteko du ekainaren 3an. Zorionak familia guziaren partetik, batez ere, Alazneren partetik.



Auniz urtez **ENE!** Bortz muxu potolo printzesa, Oier, Aine-re, Alaitz, Ane, Iñatza, Aroa, Beñat, Udane eta Elaiaren partetik.



Alkaigako **IÑATZA** GOINETXE MARI-TXALAREK maiatzaren 19an 9 urte bete ditu. Muxu erraldoi bat anai-arreba eta gurasoen partetik. Aupa Gure Txokoa!



EKIÑE GOÑI OSKOTZEK maiatzaren 31n 5 urte beteko ditu. Ongi pasa eguna! Oiz eta Arantzako familiaren partetik marubizko eta txokolatezko muxuak



UNAI ALTZAGARA ARANBILTEK 10 urte beteko ditu ekainaren 10ean. Zorionak eta muxu handi bat Almandozko atxiki, amabiki eta osabaren partetik



OLATZ ARAKUES MIKELAJAUREGIK ekainaren 2an 12 urte beteko ditu. Auniz urtez familia guziaren partetik eta muxu haundi-haundi bat Jareren partetik.



IRAI OÑSALO SAIZAR maiatzaren 14an jaio zen. Ongi etorri aresoarra! Segi goxo-goxo lotan!



PAUL IRAZOKI eta **ALIZIA OLAIZOLA** sunbilarrei zorionak aunitz! **PAULEK** maiatzaren 19an urteak bete zituen eta **ALIZIAK** ekainaren 2an beteko ditu. Segi horrela biek! Eta ez atzendu zuen lagunak gonbidatzea!



Leitzako **AMETS** eta **UNAI GEREÑO** GARCIAK maiatzaren 29an 3 urte beteko dituzte. Zorionak! Asko asko maite zaituztegu. Muxuak.



Ezkurrako **AROA NOBLE** FLORESEK ekainaren 15ean 13 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bat Janire eta Aimarren partetik. Ongi pasa eguna! Aupa e!



Oronozko **MAIALEN BARAIBAR** GORTARI etxeko printzesak 10 urte potolo bete ditu maiatzaren 27an. Muxu erraldoia ama, ata eta Aitor bihurriten partetik.




Zorionak bikote! Berako **NAROA TELLETXE** IRIARTE eta **GARAZI IRIARTE** PLAZAK maiatzaren 17an eta 19an 8 eta 3 urte bete dituzte. Muxu potolo bana!



Igantziko **ENERITZ IRAZOKI** PORTUK 4 urte bete ditu Maiatzaren 16an. Zorionak eta muxu potolo bat Lesakako familia guziaren partetik.



Sunbilla eta autxik **PAKO PETRIRENA** ARRETXEAK ekainaren 13an urteak beteko ditu. Auniz urtez familia guziaren partetik baina berexiki argazkiko hiru bibixtoen partetik. Afari goxoa prestatu autxik. Muxuak.



Sunbilla eta autxik **IÑATZA** IBARRAK ekainaren 2an urteak beteko ditu. Auniz urtez familia guziaren partetik baina berexiki Garaine eta Iraide iloben partetik. Bazkari goxoa prestatu guri izeba. Ongi pasa eguna. Muxuak.



Zorionak **KEVIN** eta **DANNY** zuen Jaunartzeagatik. Auniz maite zaituztegu. Egun ederra pasa dezazuela! Zuen familia.



Erratzuko **NAROA**K maiatzaren 29an 9 urte beteko ditu. Zorionak familia eta bereziki anaia Enaitz eta Iker, Haritz eta Hodei lehengusuen partetik.



Ebalarko **MANEX** DABORRIENA IBARRAK ekainaren 8an 7 urte beteko dituelakoz, zorionak! Txokolatezko bizkotxo bat prestatuko dugu? Muxu bat etxekoaren partetik.

IKASLE AGENDAK

egiten ditugu

PREZIO INTERESGARRIAK

ZUK NAHI DUZUN
BEZALA PERTSONALIZATUAK
ESKATU
INFORMAZIOA



ttipi-ttapa

Keskuntako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA
T. 948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kartoizko ontziak, papera,
egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak,
latak, brikak.



Beirazko botilak,
flaskoak, poteak.

Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizi luzea dute. Baliteke zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota ureztontzi batean... Zeren, manera batera edo bertara, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.



ttiipi txartela

MEN-PAHAGORRE HIRLOE
120711-6
948 635 458
123456

ttiipi txartelarekin beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUISUTRUK

~%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AUTORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koakontako bidea 7 LESAKA

T: 948 635 458 - F: 948 635 457

info@ttiipi.net

www.ttiipi.net

ZOZKETAK

614 ALEKO IRABAZLEAK

KAMISETA BAT | Onddo ta Puntio

Jose M^o BIDART | ELIZONDO

2 LIBURU | IBAIZABAL

Itigailuak-Gurpidunak | Paula ETXEBERRIA | BERA

Itigailuak-Hegari | M^o Jose MINGUITO | ETXALAR

HARPIDETZA HILABETE 1 | BERRIA EGUNKARIA

Garbiñe SARASOLA | LESAKA

TXANTXARIAK DVDa | URTXINTXA

Maite ZELAIETA | IGANTZI

2 LIBURU "MUX MUNSTROA" | ELKAR

M^o Josefa ZAPIRAIN | ARANTZA

Rosa GORTARI | ELIZONDO

2 SARRERA | Aquarium

Rosa AIESTARAN | ITUREN

1

KAMISETA BAT
Onin Art

www.oninart.com

oninart



2

LADISLAO | PANTAILA CDA
Bonberenea

www.bonberenea.com



BONBERENEA

3

2 LIBURU
Erein argitaletxea

www.erein.com

erein
argitaletxea



4

BIKOTE KARTAK
Katxiporreta

www.irrienlagunak.com



5

2 LIBURU
Ttarttalo argitaletxea

www.ttarttalo.com



TTARTTALO



6

2 SARRERA
Donostiako Aquariuma

www.aquariumss.com

AQUARIUM



DESKONTUAK

IPINGI

ELIZONDO

%10, 30etik gorako gastuan

IPARLA
kirolak

ELIZONDO

%8, 30etik gorako gastuan



ARRATE ESTETIKA ZENTROA

DONEZTEBE | %10 "Skeyndor
Eternal" krema guztietan



DONEZTEBE

%10eko deskontua cinetakoetan

bortzirudi

BERA

%5, 5etik gora, kopietan,
enkuadernazioetan eta inprentako
zenbait lanetan (ezkontza gonbidapenak,
croitgarriak...). Argibideak denda

Kimetz
Belardenda

DONEZTEBE | %5 kosmetikan